



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko martxoaren 13a

25. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- Galdera, Espainiako Gobernuari %1 kulturala dela eta Tuterako katedralaren klaustroa eta hari erantsita-koak zaharberritzeko eskaturiko laguntzen espedienteko administrazio-urratsei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, azken bost urteotan % 1 kulturala programara aurkeztutako eta zuzenean foru administrazioarekin zerikusia duten jarduera-proiektuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, 2004-05, 2005-06, 2006-07 eta 2007-08 ikasturteetan Iruñean eta Iruñerrian izandako haur hezkuntzako aurrematrikulazioaren eta matrikulazioaren datuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsuari buruz Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabakia betetze aldera hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Bardeako tiro poligonoa desegiteko egindako kudeaketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, oinarritzko osasun laguntzako zentroen sarea zabaldu eta osatu arte eraikinak egiteko asmoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Kultura Kontseiluko Artxibo eta Liburutegien Batzordeak Nafarroako Liburutegi eta Filmoteka proiektuaren gainean eginiko lanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleko erradioterapia zentroari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik Kultura Departamentuak seihileko oso bat behar duen Liburutegi Nagusian ekipamendua jartzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik Kultura Departamentuak seihileko oso bat behar duen Liburutegi Nagusiko funtsak lekualdatzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, etxebizitzaren alokairu-poltsa abian jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, 10/2007 Foru Legearen arabera “goi kargu” diren pertsonei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, “Izarbeibarreko jarduera ekonomikoen eremua” izeneko industrialdeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).

- Galdera, Nafarroako Gobernuak, Foruzaingoaren Altsasuko eta Elizondoko prebentzio taldeak direla eta, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko hartu dituen neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Leitzako Plazaolako tren geltoki zaharra zaharberritzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, haurtzaindegietan egiten diren kontrolei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, artelanen zaharberritzaileen egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, Musika Kontserbatorioa egiteko kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Leitza eta Doneztebe arteko NA-170 errepide zatiari dagokionez dituen aurreikuspenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, Nafarroako N-1, A-15 eta N-121 errepideen garbiketaren eta mantentzearen arduradunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- Galdera, Irunberriko zahar etxea handitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- Galdera, etorkinak hartzeko eta gizarteratzeko funtsari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa. Lanpostu horietako batek betekizun gisa du euskara jakitea. Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (39. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Espainiako Gobernuari %1 kulturala dela-eta Tuterako katedralaren klaustroa eta hari erantsitakoak zaharberritzeko eskaturiko laguntzen espedienteko administrazio-urratsei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Espainiako Gobernuari %1 kulturala dela-eta Tuterako katedralaren klaustroa eta hari erantsitakoak zaharberritzeko eskaturiko laguntzen espediente-ko administrazio-urratsei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 31ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru-parlamentari Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Tuterako katedralaren klaustroa eta haren ondokoak zaharberritzeko dirulaguntza-espedientearen urrats administratiboak buruz, dirulaguntza eskatu zene-
tik gaurdainokoa buruz; izan ere, Nafarroako Gobernuak egin zion eskaera Espainiako Gobernuari, %1 kultura-programaren barruan baitago. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

2002ko apirilaren 4an hasi ziren katedralako obrak. Lehendabizi, Espiritu Santuaren kapera berritzen hasi ziren. Aspaldidanik dituzte harreman zuzenak Kultura Departamentuak eta Ministerioko arduradunek, hain zuzen, Arte Ederretako zuzendari nagusi Joaquín Puig de la Bella Casa jaunarekin; izan zituzten bilera haietan, agerian geratu zen nahitaezkoa eta komenigarria zela Tuterako katedralan esku-hartzea.

2002ko urriaren 30ean, Sustapen Ministerioaren eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren arteko lankidetzarako Batzorde Mistoaren XXXVI-II. bilera izan zen. Bilera hartan, Espiritu Santuaren kapera zaharberritzeko obrak onartu ziren, nahiz ordurako obrak hasita zeuden; izan ere, Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioak ekin zion lanari eta Kultura Departamentuko Ondare Zerbitzuko bi teknikaririk zuzentzen zituzten obrak. Fundazioak Tuterako seu guztia hartu zuen kontuan, hau da, indusketa arkeologikoa, estalkiak, kaperak eta katedralako ondasun higigarri guztiak.

Nafarroako Gobernuak bere gain hartu zuenez katedrala zaharberritzea, Nafarroako Gobernuak %1eko Batzorde Mistoari ikusarazi zion, koherenteagoa izango litzatekeela Ministerioak klaustroa eta ondoko gelak berreskuratzeko obrak bere gain hartzea, Espiritu Santuaren kapera zaharberritzea hartu behar.

2003ko uztailaren 8an, aurrekontua adostu eta onartu egin zen, eta Katedralen Planen barruan erantsi zen klaustroa. Horrenbestez, Batzorde Mistoak finantziarioa inbertsio bidez onartzea erabaki zuen; 1.050.700 zenbatekoa onartu zuen, bi aurrekontu-ekitalditan ematekoa, katedralaren klaustroa eta hegoaldeko gelak zaharberritzeko lanetarako. Espainiako Ondare Historikoaren premiei aurre egiteko, Sustapen Ministerioaren eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren arteko lankidetzahitzarmenaren bidez "Katedralen, Basiliken eta Kolegiaten Plana" sortu zuten, eta han erantsi zuten jarduerak; premiei aurre egiteko, zaintzeko, hobetzeko, zaharberritzeko eta birgaitzeko obrak egiten dituzte, %1 kultura-programaren kargura.

2003ko azaroaren 27an, horren berri emateko informazioa bidali ziguten.

2004ko otsailaren 2an, Etxebizitza, Arkitektura eta Hirigintzako Zuzendaritza Nagusiak aholkulari-

tza- eta laguntza-kontratua INTEINCO enpresari esleitu zion, Tuterako Santa Maria katedralerako Plan Zuzendariari buruz jarduteko.

2004ko martxoaren 22an, Ministerioak jakinarazi zigun Tuterako katedralari buruzko Plan Zuzendaria idaztea erabaki zuela, eta Jarraipen Batzordea sortu ahal izateko datuak eskatu zizkiguten. Zenbait bilera izan ondoren, Batzordea honako hauek osatzea erabaki zen: Javier Sancho jaunak; Vicente Ilzarbe jaunak; Ramón de la Mata Gorostizaga jaunak (IPHE-Espainiako Ondare Historikoaren Institutua); María Luisa Sánchez Laulhe andreak (Etxebizitza Ministerioako Arkitekturako zuzendariordetza nagusia) eta Luis Garrido Vázquez jaunak, Nafarroako Gobernuaren Espainiako ordezkariak eta batzordeko koordinatzailea bera.

2005eko uztailaren 6an, Espainiako Ondare Historikoan elkarrekin jarduteko, Sustapen Ministerioaren eta Kultura Ministerioaren arteko IV. lankidetzaren hitzarmenaren Batzorde Mistoak egindako XLIV. bileran, Tuterako katedralako klaustroa eta hegoaldeko gelak zaharberritzeko dirulaguntza ematea erabaki zuten; zenbatekoa, 525.000 euro, eta bi urtetan emanen zela adostu zuten.

2005eko uztailaren 9an, Kultura ministro Carmen Calvo andrea Iruñean izan zen, eta berriz ere adierazi zuen Espainiako Gobernuak Tuterako katedralako klaustroa eta ondoko gelak zaharberritzeko obrak bere gain hartuko zituela, %1 kultura-programaren kargura; bilera hartan, Nafarroako presidente Miguel Sanz, Kultura eta Turismo kontseilari Juan Ramón Corpas eta Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkari Vicente Ripa izan ziren.

Jarraipen-batzordearekin harremanetan jarri ondoren, Katedralari buruzko Plan Zuzendariaren Idazketa Batzordeko Ramón de la Mata Gorostiza jaunarekin bilera-eguna zehaztu zen. Ramón de la Mata jauna, IPHEko aholkulari tekniko José María Losada jauna, batzordeko kide Javier Sancho jauna eta Kultura eta Turismo kontseilari Juan Ramón Corpas katedrala, klaustroa eta ondoko gelak zaharberritzeko obrak ikusi zituzten, 2005eko abuztuaren 9an; bisita horretan, Plan Zuzentzailea bukatu arte, klaustroari eta ondoko gelei buruzko proiektua atzeratzea komeni zela egiaztatu zuten. Hona hemen Ramón de la Mata jaunak horri buruz egindako adierazpena: "Horrelako obretan, behar adina denbora hartzearen aldekoak gara, jardueretan hutsik ez egiteko" (Diario de Navarra, 2005eko abuztuaren 10a, asteazkena).

Plan Zuzendariaren Idazketa Batzordearekin eta Sustapen Ministerioako Laguntzak, Dirulaguntzak eta Proiektuak Kudeatzeko zuzendariorde nagusiarekin zenbaitetan bildu ondoren, eta 2005eko irailaren 27ko data zeraman gutun baten bidez, hau jakinarazi genuen: 2002. urteaz geroztik, Tuterako katedrallean jarduera handia gauzatzeko ari gara, ondasun higigarri guztien tratamendu integrala barne hartzen duena; horrezaz gain, Tuterako katedralako klaustroa eta ondoko gelak zaharberritzeko adierazi zuten laguntzeko asmoa eskertu genien. Proiektu hori 2006ko lehen hiruhilekoan amaitu zen. Klaustroa zaharberritzeko aukera ematen duen Exekuzio Proiektua egitea eta egiten ari ziren obrak erabat lotuta zeudenez, aipatutako exekuzio-proiektua egitea atzeratzea erabaki genuen, eta, hortaz, hori bera egitea eskatu genuen.

Horrezaz gain, ikusarazi genuen klaustroan esku-hartzeko jardueren segidaren ordena logikoa nahi izatekotan, lehendabizi Plan Zuzentzailea amaitzea nahitaezkoa zela, klaustroaren proiektua idatzi aurretik.

2005eko azaroaren 16an, Espainiako Ondare Historikoan elkarrekin jarduteko, Sustapen Ministerioaren eta Kultura Ministerioaren arteko IV. lankidetzaren hitzarmenaren Batzorde Mistoak egindako XLV. bileran, Tuterako katedralako klaustroa eta hegoaldeko gelak zaharberritzeko hitzarmena sinatzeko proiektuaren aurkezpen-epea luzatzea erabaki zen, I. Ekintza, 2006ko ekainaren 1a arte.

2006ko martxoaren 21ean, eta Sustapen Ministerioarekin zenbaitetan elkartu ondoren, Laguntzen, Dirulaguntzen eta Proiektuen zuzendariorde nagusiari idatzi bat bidali genion; dokumentu haren bidez jakinarazi genion Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak Tuterako katedralako klaustroa eta ondoko gelak zaharberritzeko Exekuzio Proiektua, I. Ekintza, egiteko konpromisoari eusten diola. Hortaz, luzapena luzatzea eskatzen dugu.

Ondarearen Kontseilua Iruñean bildu zen, eta, 2006ko ekainaren 29an, Ministerioan Ondareaz arduratzen direnek katedrala eta bertako klaustroa ikusi ondoren, Kultura eta Turismo Departamentuko arduradunekin elkartu ziren; bilera hartan, besteak beste, Tuterako klaustroa zaharberritzeko aurreikuspenez aritu ziren.

Plan Zuzendariaren gaia berriz ere mintzagaia izan genuen, Santa Cruz Tenerifekoan izan zen kultura-sektoreko biltzarrean, 2006ko irailaren 17an. Kontseilariak ministroari jakinarazi zion Plan Zuzendariaren zain geundela, klaustroari eta

ondoko gelei buruzko proiektuaren erritmoa adosteko.

2006ko urriaren 25ean, Laguntzak, Dirulaguntzak eta Proiektuak Kudeatzeko zuzendaritzaorde nagusiak jakinarazi zigun Batzorde Mistoak 2006ko uztailaren 5ean bilera egin zuela, Tuterako katedraleko klaustroa eta hegoaldean dauden gelak zaharberritzeko obren espedienteari buruz jarduteko, eta, bertan, luzapena berriz ez luzatzea erabaki zutela, eta, ondorioz, ez zegoela indarrean bere garaian eman zuen aldeko iritzia.

"Tutera. Katedral baten legatua" izeneneko erakusketa-aldia amaitu zenean, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko teknikari-talde batek Exekuzio Proiektua osatzeko datuak biltzeari ekin zion 2007ko urtarrilaren 7an; besteak beste, klaustroko gelei buruzko azterlanak eta dokumentazioa, klaustroa osatzen duten gelen definizioa eta haien planimetriak; azterketa historikoa eta dokumentala eta harriari buruzko azterlanak.

2006ko abenduaren 18an, eta aurreko hilabeteetan elkarrizketarik izan gabe, kultura-sektoreko biltzarra Iruñean elkartu zen; bertan, ministroari proiektuaren ezaugarriak azaldu genizkion, Ministerioak Plan Zuzendaria idazteko konpromisoa hartu zuela esan genion, eta, horrezaz gain, adierazi genion haserre geundela Ministerioak finantziazioa bertan behera utzi zuelako, nahiz Plan Zuzendaria amaitu zain geundela jakin, eta berriz ere adierazi genuen Nafarroako Gobernuak laguntzen jarraitu nahi duela; bestalde, aipatutako Plana lehenbailehen amaitzeko eskatu genion, baita

luzapena bertan behera utzi izana berriz hausnartzeari.

2007ko uztailaren 6an, Kultura ministro Carmen Calvo andreak kargua utzi zuela eman zuten jakitera.

2007ko uztailaren 10ean, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuan Tuterako katedralari buruzko Plan Zuzendaria jaso genuen.

Nafarroako presidente Miguel Sanz eta Espainiako presidente José Luis Zapateroren arteko aldebiko topaketan, 2007ko urriaren 17an, besteak beste, Tuterako katedraleko klaustroa izan zuten mintzagai.

Harrezkero, Kultura eta Turismo Departamentuak Plan Zuzendaria osatzeko nahitaezkoak diren azterketak egiten dihardu.

Horrezaz gain, kontseilariak telefono bidezko elkarrizketak izan ditu Kultura ministro berriarekin, hau da, César Antonio Molinarekin, egoeraren berri izan dezan; bestalde, eta hark hala eskatuta, gaiari buruzko laburpena bidali dio idatziz, ahal dela datorren kultura-arloko biltzarrean, 2007ko abenduaren 10erako aurreikusia, gaiari buruz hitz egiteko.

Beraz, hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007-11-16ko azaroaren 19an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, azken bost urteotan % 1 kulturala programara aurkeztutako eta zuzenean foru administrazioarekin zerikusia duten jarduera-proiektuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Román Felones Morrás jaunak galdera egin du azken bost urteotan % 1 kulturala programara aurkeztutako eta zuzenean foru administrazioarekin zerikusia duten jarduera-proiektuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna,

Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 31ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Foru Administrazioarekin lotura zuzena duten jarduera-proiektuei buruz, azken bost urteotan %1 kultura-programan aurkeztutakoei buruz; hain zuzen ere, jakin nahi du onartutako proiektuak eta horiei emandako hasierako laguntzaren zenbatekoa, eta atzera bota diren proiektuak eta arrazoiak. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

– Elgorriaga, bainuetxea.

Bainuetxe Programaren barruan, Elgorriagako bainuetxea zaharberritzea onartu zen 1999ko urtarrilaren 26ko bileran; Batzorde Mistoak onartu zuen (Sustapen Ministerioaren eta Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren artean Espainiako Ondare Historikoan elkarrekin jarduteko Lankidetzaren Hitzaurrearen ondorioz sortua) aipatutako lana %1 kultura-programaren kargura eginen zela, eta hala jasota dago XXIII. Aktan.

Nafarroako Gobernuak, 1999ko apirilaren 12ko akordioaren bidez, Sustapen Ministerioaren, Nafarroako Gobernuaren eta Elgorriagako Udalaren arteko Lankidetzarako Protokolo Nagusiaren Oinarriak onartu zituen, Elgorriagako bainuetxea zaharberritzeko; 1999ko ekainaren 10ean sinatu zen.

Protokolo horrek zera dio:

“Sustapen Ministerioak, Etxebizitza, Arkitektura eta Hirigintzako Zuzendaritza Nagusiaren bidez, exekuzio-proiektuko aurrekontuaren %50 finantzatzeko duela adierazten du, gehienez 435 milioi pezeta, lau aurrekontu-ekitalditan. Finantziario horretarako, 432. programaren dirua eskura du, eta %1 kultura-programaren funtsak ere erabil ditzake.

Halaber, Etxebizitza, Arkitektura eta Hirigintzako Zuzendaritza Nagusiak lehiaketa publikoaren deialdia eginen du, oinarritzko proiektua eta exekuzio-proiektua idazteko.

Nafarroako Gobernuak, dokumentu honen bidez, lanek eragindako exekuzio-proiektuko aurrekontuaren %30 finantzatzeko asmoa duela adierazi du, haren egoera ekonomikoaren arabera beti ere.

Elgorriagako Udalak, dokumentu honen bidez, lanek eragindako exekuzio-proiektuko aurrekontuaren %20 finantzatzeko asmoa duela adierazi du, haren egoera ekonomikoaren arabera beti ere.

2002ko uztailaren 17an, Batzorde Mistoak Lankidetzarako Hitzarmena berretsi ondoren, Sustapen Ministerioak lanek exekuziorako kontratu-espedita jarri zuen abian, baina esleitu gabe geratu zen; Administrazio Publikoaren Kontratu Legearen Testu Bateginaren 141, a) artikulua ezarritakoaren babesean, prezioak %10 eguneratu dira linealki; kopuru hori Elgorriagako Udalak hartu du bere gain, 2003ko uztailaren 16an aho batez onartu ondoren.

2004ko otsailaren 3an izandako bilkuran Batzorde Mistoak onartu egin zuen aurrekontu eguneratua, eta obrak ordaintzeko alde bakoitzak jarri beharreko zenbateko berriak erabaki ondoren (%40,6501678 Sustapen Ministerioak eta %59,3498321 Elgorriagako Udalak), Sustapen Ministerioak beste kontratu-espedita bat jarri zuen abian; adjudikazio-hartzailea Isolux SA enpresa izan zen.

Sustapen Ministerioak proposatutakoari jarraiki, Elgorriagako Udalak, 2004ko urtarrilaren 16ko bilkuran, urte anitzeko gastu-plana onartu zuen obra horiek ordaintzeko; haren arabera, hona hemen erabakitako urteko ordainketa

URTEA	SUSTAPEN M.	ELGORRIAGAKO U.	GUZTIRA
2004	0,00	1.400.000,00	1400.000
2005	0,00	3.304.693,72	3.304.693,72
2006	2.222.361,08	0,00	2.222.361,08
2007	1.000.000,00	0,00	1.000.000,00
GUZTIRA	3.222.361,08	4.704.693,08	7.927.054,80

Nafarroako Gobernuak, Elgorriagako bainuetxea zaharberritzeko 1999ko ekainaren 10ean sinatutako Lankidetzarako Protokolo Nagusia ezarritakoa betez (Sustapen Ministerioaren, Nafarroako Gobernuaren beraren eta Elgorriagako Udalaren artekoa), baimena eman zuen 2004ko abuztuaren 30ean, Elgorriagako Udalari 1.933.428 euroko dirulaguntza emateko eta horrekin bainuetxea zaharberritzeko obrak finantzatzeko; zenbateko hori honela banatu zen:

733.428.- euro, "Sustapen Ministerioarekin batera finantzatutako inbertsioetarako laguntzak" izeneko A10001-A1120-7600-751203 kontusailaren kargura, 2004ko gastu-aurrekontuetakoa.

600.000.- euro, 2005. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan horretarako propio egokitzen den kontusailaren kargura, kreditu egokia eta nahikoa badago.

600.000.- euro, 2006. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan horretarako propio egokitzen den kontusailaren kargura, kreditu egokia eta nahikoa badago.

2004. urte bukaeraz geroztik ari dira obretan.

– Martzillako gaztelua.

1999. urteko ekainaren 10ean sinatu zen Sustapen Ministerioaren, Nafarroako Gobernuaren eta Martzillako Udalaren arteko lankidetzarako protokolo nagusia.

2001eko otsailaren 16an, "Martzillako gazteluaren oinarrizko proiektua eta exekuzio-proiektua idazteko" laguntza teknikoa behin betiko adjudikatu zion Sustapen Ministerioak Luis Martínez Santa-María jaunari; zenbatekoa: 114.192,30 euro (19.000.000 pezeta).

Aurrekontuaren zenbatekoak gora egin du denboraren joanean, eta proiektua askotan aldatu delako. Sustapen Ministerioak bere gain hartu zuen konpromisoari buruzko azken datuak Batzorde Mistoak jakinarazitakoak dira (Sustapen Ministerioaren eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren artean 2003ko uztailaren 8an sinatutakoa, Espainiako Ondare Historikoan elkarrekin jarduteko). Martzillako gazteluan obrak egiteko 4.409.356 €-ko kopurua berretsi zen, aurrekontua guztiaren (10.498.467 euro) %42.

Sustapen Ministerioak 2003ko abenduaren 17an fax bidez bidalitako informazioaren arabera, hona hemen Martzillako gazteluaren exekuzio-proiektuaren finantza-koadroa:

Sustapen Ministerioa, %42	4.409.356,00
Martzillako Udala, %10	1.049.847,00
Nafarroako Gobernua, %48	5.039.264,00

2005ean, Martzillako Udalarekin adostu ondoren, Luis Martínez Santa-María jauna kontratatu zen Martzillako gaztelua zaharberritzeko beste oinarrizko proiektu bat idazteko; hain zuzen ere, eraikinaren beste erabilera baterako programari jarraiki idazteko. Nafarroako Gobernuak finantzatu du oinarrizko proiektu horren idazketa.

Martzillako gaztelua zaharberritzeko eta egokitzeko obren exekuzio-proiektua idazte-prozesuan da 2007. urtean; aurrekontua 9.907.982,08 euro ingurukoa da, eta exekuzio-epaia 30-36 hilabete ingurukoa. Tamaina horretako proiektuaren izapidetzea dela-eta, ezinezkoa da urte honetan bertan hastea lanean.

Horrezaz gain, oraindik ez dakigu zer dioen Etxebizitza Ministerioak proiektuari buruz, Ministerioaren, Martzillako Udalaren eta Departamentuaren beraren artean hitzarmena sinatu, horrela obrak finantzatzeko, edo Nafarroako Gobernuak obren hasiera bere gain hartu eta gerora eman irtenbidea administrazio-tramiteei.

2008ko aurrekontu-zirriborroari dagokionez, prentsaren bidez eta bertan (2007ko irailaren 26a) Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Vicente Ripa ordezkariak egindako adierazpenak irakurrita jakin genuen, Ministerioak 50.000 euro ematea onartu zuela Martzillako gaztelua zaharberritzeko. Kopuru hori ez da nahikoa, proiektua oso handia baita. UPN alderdiak, aldaketa-proposamen baten bidez, 866.391 euro (1873. aldaketa-proposamena) eskatu zituen gaztelua zaharberritzeko; eta IU alderdiak 3.000.000 euro (629. aldaketa-proposamena). Ez ziren onartu, ez bata, ez bestea.

2008ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan aurreikusita dago Martzillako gaztelua zaharberritzeko eta egokitzeko lanei ekiteko nahitaezkoa den laguntza ekonomikoa, eta urte horretan egin ahal izanen den lanaren zenbatekoa ere kontuan hartzen da.

– Tutera, Gaztambide antzokia

1999ko abenduaren 23an sinatu zen Nafarroako Gobernuaren eta Tuterako Udalaren arteko lankidetzaz-hitzarmena; bertan, Nafarroako Gobernuak bere gain hartu zuen Udalari 156 milioi pezetako dirulaguntza emateko konpromisoa, hau da, Udalak Sustapen Ministerioarekin adostutako finantziazio-konpromisoaren %60.

Hitzartutakoaren arabera, honela banatuko zen Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza:

1999	27.000.000 pezeta
2000	50.000.000 pezeta
2001	79.000.000 pezeta
GUZTIRA	156.000.000 pezeta

Hitzarmena sinatu zenean, lehendabiziko kopurua ordaindu zen: 27.000.000 pezeta; hau da, 162.273,27 euro. Hala ere, zaharberritze-proiektuak aurrera egin ez zuenez eta obra-ziurtagiririk e zegoenez, gainerako diru-kopuruak ez ziren ordaindu.

2004ko otsailaren 19an, Sustapen Ministerioak Tuterako Udalarari obrari buruzko kostu- eta finantzi-azio-aula berriak jakinarazi zizkion; izan ere, azkenean, 5.521.308,11 euro egin zuen. Ministerioak zenbateko guztiaren %60 emanen du (3.312.784,87 euro), eta Udalak gainerako %40a finantzatzeko konpromisoa hartu du bere gain, hau da, 2.208.523,24 euro.

1999. urtean Nafarroako Gobernuak bere gain hartu zuen konpromisoa betetzeko, hau da, Udalarari zegokion zatiaren %60 finantzatzeko konpromisoa, Gobernuak eman beharreko dirulaguntzak 1.325.113,95 eurokoa izan beharko luke. Hori gauzatu ahal izateko, beste hitzarmen bat sinatu behar da Tuterako Udalarekin eta falta den dirulaguntza, 1.162.840,67 euro, onartu (hau da, dirulaguntza guztiari, 1.325.113,94 euro, 1999an emandako kopurua kenduta, 162.273,27 euro, geratzen den zenbatekoa).

Horrenbestez, Epe Ertainerako Ekonomia Planean kopuru hauek jarri ziren:

2005	320.000 euro
2006	500.000 euro
2007	350.000 euro
GUZTIRA	1.170.000 euro

2005. urtean, Tuterako Udalak bidalitako obrak hasi zireneko akta jaso zen, eta hitzarmena sinatzeko tramiteak egiteari ekin zitzaion.

– Tutera. Andre Mariaren katedralari buruzko Plan Zuzendariaren idazketa.

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua: 150.000,-€.

2004ko otsailaren 2an, Etxebizitza, Arkitektura eta Hirigintzako Zuzendaritza Nagusiak aholkularitza- eta laguntza-kontratua INTEINCO enpresari esleitu zion, "Tuterako Santa Maria katedralerako (Nafarroa) Plan Zuzendariari" buruz jarduteko. 2007ko uztailaren 10ean jaso zuten Kultura eta Turismo Departamentuan Plan Zuzendaria, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eskatutako PES 101ean jasota dago; PES horren erantzunean bertan, halaber, Tuterako katedralaren klaustroari buruz eta haren ondoan dauden gelei buruzko informazioa ere biltzen da.

Esleipen-epea 12 hilabetekoa zen, kontratua sinatu ondoren kontaktzen hasita.

Tuterako katedrala zaharberritzeko proiektuari buruz eta egun horietan egindako lanei buruz zegoen dokumentazio guztia eman zitzaion plana idazteaz arduratuko zen taldeari, eta Jarraipen Batzordean parte hartu genuen.

– Iruña. Guadalupeko Andre Mariaren gotorlekua, I. fasea.

Iruñeko Udalaren eta Sustapen Ministerioaren arteko hitzarmenaren bidez gauzatu da proiektua.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak esku-hartu zuen, Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkitektura Ondarearen ataleko bi arkitekturen bidez; haiek egin zuten eskuhartze-proiektua eta arduratu ziren obra zuzentzeaz.

Fase hori 2004. urtean amaitu zen.

– Iruña. Guadalupeko Andre Mariaren gotorlekua, II. fasea.

Proiektuaren bigarren fasea ere Iruñeko Udalaren eta Sustapen Ministerioaren artean tramitatu da.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak I. fasean bezala parte hartu du: Ondare Historikoaren Zerbitzuko Arkitektura Ondarearen ataleko bi arkitekto egin zuten parte-hartze-proiektua eta arduratzen ari dira obra zuzentzeaz.

Exekuzio fasean.

– San Pedro Ruakoa elizako klaustroa

San Pedro Ruakoa eliza da Nafarroako Done Jakue Bidean dagoen eraikin adierazgarrietako bat, eta Espainiako Gobernuaren eta Nafarroako Gobernuaren artean hitzarmena sinatu zuten hura zaharberritzeko; hitzarmena protokolo batean oinarritu zen, hain zuzen, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Departamentuaren, Arte Ederren eta Kultur Ondasunen Zuzendaritza Nagusiaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko protokoloan.

Horretan, Ministerioak Lizarrako San Pedro Ruako elizaren zaharberritze-proiektua eta exekuzioa bere gain hartzeko konpromisoa hartu zuen.

2004an, otsailaren 20ko 31/2004 Foru Agindua onartu zuen Nafarroako Gobernuak, Gobernuaren eta Ministerioaren artean hitzarmen bat sinatzeko asmoarekin, Lizarrako San Pedro Ruako eliza zaintzeko, zaharberritzeko eta egokitzeko.

Espainiako Gobernuak, gaurdaino, ez du onartu proiektu hori %1eko inongo batzordetan eranstea.

Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Departamentuak, bestalde, elizari buruzko Plan Zuzendaria egiteko agindu du, eta, halaber, elizaren estalkietarako proiektua idazten ari da; aurrekontua 600.000 euro ingurukoa da. UPN alderdiak aldaketa-proposamena egin du Estatuko Aurrekontu Orokorretatik 1.000.000 euro jasotzeko San Pedro Ruako elizarentzat, eta NaBai alderdiak 1.000.000 euro jasotzeko. Ez dira onartu bi aldaketa-proposamen horiek.

Gobernuak Kultura ministroarengana jotzea aurreikusten du, proiektu hori, hitzartu bezala, bere gain hartzeko aukeraz berriz ere hausnartzeko.

Beraz, hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 19an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, 2004-05, 2005-06, 2006-07 eta 2007-08 ikasturteetan Iruñean eta Iruñerrian izandako haur hezkuntzako aurrematrikulazioaren eta matrikulazioaren datuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du 2004-05, 2005-06, 2006-07 eta 2007-08 ikasturteetan Iruñean eta Iruñerrian izandako haur hezkuntzako aurrematrikulazioaren eta matrikulazioaren datuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko azaroaren 13ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Luisa Mangado Cortes

andreak galdera egin zuen haur hezkuntzako eskaintzaren eta eskariaren bilakaerari buruz - Haur Hezkuntzako (3 urte) aurrematrikulazioari eta matrikulazioari buruzko datu estatistikoak, 2004/05, 2005/06, 2006/07 eta 2007/08 ikasturteei buruzkoak, Iruñekoak eta Iruñerrikoak eta Nafarroako gainerako lekuetakoak-. Honekin batera doa horren erantzuna.

Iruñean, 2007ko azaroaren 21ean

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

(Oharra: aipatutako eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-07/PES-000127 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

Galdera, bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsuari buruz Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabakia betetze aldera hartutako neurrii buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Nekane Pérez Irazábal andreak galdera egin du bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua-ren gainean Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabakia betetze aldera hartutako neurrii buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 31ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabal andreak galdera egin du jakiteko zer neurri hartu dituen Nafarroako Gobernuak bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsuari dagokionez. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabal andreak galdera egin du jakiteko zer neurri hartu dituen Nafarroako Gobernuak 2006ko martxoaren 16an Nafarroako Parlamentuak emandako ebazpena betetzeko. Ebazpen horren bidez, Nafarroako Gobernuak pre-miatzen da neurriak har ditzan administrazio publikoek bidezko merkataritzan eta kontsumo arduratsuan parte har dezaten.

Horri dagokionez, esan behar dugu Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak bi neurri mota hartu dituela garapenerako lankidetzapolitikaren esparruan. Alde batetik,

garapen bidean dauden herrialdeei laguntzeko dugun sistemaren plangintza estrategikoarekin zerikusia duten neurriak daude. Bestetik, alor horretako ekimen sozialak laguntza publikoen bidez sustatzeko neurriak daude:

A) Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua Nafarroako lankidetzaz-estrategian sartzeko neurriak:

2006ko urrian Nafarroako lankidetzari buruzko I. plan zuzendaria onartu zen, eta bertan, bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsuari buruzko aipamenak egin ziren; zehazki honakoak:

a.1.) Planaren helburu zehatzetako batean aipatzen da Nafarroako lankidetzak Nafarroako herritarrengan jarrera eta portaera arduratsuak sustatu behar dituela: kontsumo arduratsua, bidezko merkataritza eta ingurumenarekiko errespetuko kultura orokor bat.

a.2.) Bestalde, gure lankidetzan ondoko lehen-tasun sektorialak ezartzen dira: (a) Banatzen eta merkaturatzen laguntzea, herrietako, herrialdeetako eta nazioarteko merkatu sareetara sarbidea emanez, bereziki nazioarteko bidezko merkataritzaren bideetara; (b) Nafarroako gizartearen bidezko merkataritza sustatzea ondoko alorretan: kontsumo arduratsua, Erantzukizun Sozial Korporatiboa edo gizartearen edo ingurumenaren estandarren arabeko erosketak publikoak; edo (c) mikroredituak eta txandakako funtsak, bereziki berme etiko eta elkartasunezkoen barruan daudenak.

Nafarroan bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua sustatzeko hartutako neurriak:

2006an, ondoko proiektu hauek finantzatu ziren:

Erakundea	Proiektua	Dirulaguntza
Bidezko Merkataritza-Azoka - Comercio Justo elkarteak	Elkartasunezko erosketaren astea	15.383,50
Nafarroako Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea (REAS)	Kontsumo arduratsua eta elkartasunerako ekonomia	36.686,01
SETEM Nafarroa, Hirugarren Mundurako Zerbitzua	"El buen café es bueno para todos"	13.465,00
GUZTIRA		65.534,51

2007an, ondoko proiektu hauek finantzatu dira:

Erakundea	Proiektua	Dirulaguntza
Bidezko Merkataritzaren Partzuergoa (Medicus Mundi Nafarroak ordezkaturia)	Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna Iruñean 2007	22.555,43
Enpresa eta Elkartasuna Fundazioa	Enpresa: garapenerako lankidetzaren eragile berria	10.123,00
Nafarroako Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea (REAS)	Kontsumo arduratsurako aukerak eskaini	48.267,06
SETEM Nafarroa, Hirugarren Mundurako Zerbitzua	Arropa garbia kanpaina: sentsibilizazioa Hegoaldeko lurraldeetako ehungintzaren lan-baldintzei buruz.	12.925,86
SETEM Nafarroa, Hirugarren Mundurako Zerbitzua	"El buen café es bueno para todos"	9.748,80
Nafarroako Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea (REAS)	Elkartasunezko ekonomia hedatu eta ikusgarri egitea	30.821,83
Adsis fundazioa	Bidezko merkataritza pobreziaaren aurkako borrokan.	14.193,78
GUZTIRA		148.635,76

Bestalde, eta duela gutxi departamentu honi batu zaion kontsumo alorretik, aipatu behar da Nafarroako Parlamentuaren Ebazpena onartu baino lehen –ebazpen hori 2006ko martxoaren 16an onartu zen–, zehazki 2004an, Nafarroako Gobernuak Kontsumo Zerbitzuak eta Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabideen Zentroak (NIABZ), Eroski fundazioarekin batera, martxan jarri zutela kontsumo arduratsuari buruzko mintegi bat. Mintegi horren xedea zen etorkizunean gizarte eta erakunde eragileen foro baterako oinarriak ezartzea.

Mintegi horren ostean, eta Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarearekin batera, 2005ean Nafarroako Kontsumo Arduratsuen Foroa eratu zen. Horren helburua zen garapen iraunkorarekin bateragarria izango zen kontsumo bidezkoa eta arduratsua aztertzea, sustatzea eta zabaltzea.

Foroaren helburu nagusia da instituzioen, erakundearen eta pertsonen sarea sustatzea, kontsumo bidezkoa eta arduratsua bultzatzeko. Bere eginkizun eta jarduera nabarmenen artean honakoak aipa genitzake: ekimenak batu eta koordinatu, kontsumoaren egoera aztertu eta jarraitu, kontsumo bidezkoa eta arduratsuen orientazioari buruz dauden iritziak alderatu, informazioa eta esperien-

tzia bildu eta zabaldu, eta ekintzarako konpromisoak hartu.

Foro horretan, hainbat alorretako 50 erakunde garrantzitsuk hartzen dute parte. Bertan daude: administrazioa, kontseilu arau-emaeleak, Nafarroako kontsumitzaileen elkarteak eta kontsumitzaileak informatzeko udal bulegoak, ikastetxeak eta gizarte-erakundeak.

2006ko martxoan, Kontsumo Arduratsuen Foroak Nafarroako Kontsumo Arduratsuari buruzko lehen Gidaliburua argitaratu zuen.

2007. urte honetan, dagoeneko bigarren gidaliburua argitaratu da: Nafarroako Elikadura Arduratsuen Gidaliburua. Gidaliburu horrek elikaduran jartzen du arreta eta hemendik gutxira Nafarroako hedabideen aurrean aurkeztuko da.

Argitalpen horiek alde batera utziz, etengabe-koa da kontsumo bidezko, arduratsua eta iraunkor baten alde prestakuntzaren, hezkuntzaren eta informazioaren alorretan egiten den lana.

Iruñean, 2007ko azaroaren 21ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: M.^a Isabel García Malo

Galdera, Nafarroako Gobernuak Bardeako tiro poligonoa desegiteko egindako kudeaketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak Bardeako tiro poligonoa desegiteko egindako kudeaketei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 31ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuak Bardeako tiro poligonoa desegiteko egindako urratsei buruz - Nafarroako Parlamentuko Mahaiak izapidetzeko onartu zuen galdera hori 2007ko urriaren 19an (PES 110)-. Horra Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Informazioa eskatu duen parlamentari jaunak bere idatzian ongi gogoratzen duen bezala, Nafarroako Parlamentuko Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Batzordeak erabaki bat onetsi zuen aurreko legegintzaldian, martxoaren 25ean hain zuzen ere; erabaki haren bidez,

Nafarroako Gobernuak premiatu zen Bardeako tiro poligonoa kentzen laguntzeko jarduketara plana egin zezan.

Parlamentari jaun horrek orobat jakinen du zer iritzi zuten horri buruz orduko Gobernuak eta haren lehendakari Miguel Sanz Sesmak, egungoaren lehendakari ere badena. Halere, hegazkin militarrek tiro praktikak egite aldera Nafarroako lurraldea erabil ez dezatelako desirak ez du inolako lege ondoriorik; izan ere, akordio bat dute horri buruz erabakitzeko ahalmena duten bi aldeek, Bardeako Komunitateak (22 gozamen-kideak bildu eta ordezkatzan ditu: 19 udal, bi ibar eta monasterio bat) eta Defentsa Ministerioak.

Gauzak horrela, bi erakunde horiek hitzartzeko gaitasun juridikoa dutenez zeinek bere eskumenen esparruan, Nafarroako Gobernuak nekez joan daiteke bere desira -Parlamentuko batzorde horrenarekin bat datorrena- berrestean haratago. Desira hori, bestalde, ondo ezaguna da jendartearen, behin baino gehiagotan adierazia izan delako.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 20an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, oinarrizko osasun laguntzako zentroyen sarea zabaldu eta osatu arte eraikinak egiteko asmoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du oinarrizko osasun laguntzako zentroyen sarea zabaldu eta osatu arte eraikinak egiteko asmoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko azaroaren 9ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du oinarrizko osasun laguntzako zentroyen sarea zabaldu eta osatu arte eraikinak egiteko

asmoari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako oinarrizko laguntzako zentroyen sarea osatuta dago. Nafarroako Foru Komunitatea oinarrizko 54 osasun eskualdetan dago banatuta, eta horietako bakoitzak badu dagokion oinarrizko osasun laguntzako zentroa.

2.- Osasun Departamentuak ez du asmorik beste osasun etxe bat eraikitzeke Leitzako eskualde oinarrizkoan. 2004an eraberritze-obra egin zen -kontsulta berri bat eta guardiako langileentzako egongela bat-, zeinean 17.878 euro inbertitu baitziren.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 27an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Nafarroako Kultura Kontseiluko Artxibo eta Liburutegien Batzordeak Nafarroako Liburutegi eta Fimoteka proiektuaren gainean eginiko lanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Nafarroako Kultura Kontseiluko Artxibo eta Liburutegien Batzordeak Nafarroako Liburutegi eta Fimoteka proiektuaren gainean eginiko lanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko azaroaren 9ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Nafarroako Kultura Kontseiluko Artxibo eta

Liburutegien Batzordeak Nafarroako Liburutegia eta Fimoteka proiektuaren gainean eginiko lanari buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

2000ko irailean, Nafarroako Liburutegia San Frantzisko eskolen orubean jartzeko erabakia hartu ondotik, eraikin berria eraikitzeke ideien lehiaketa publikoa deitu zen.

Lehiaketa 2001eko ekainean ebatzi zen. Lehengo saria Manuel Ferrer Salar arkitekto bartzelonarrak aurkeztutako proposamenak irabazi zuen, eta beste horrenbeste arkitekto aurkeztutako hiru proiektu ere saritu ziren.

Alde zaharreko eskola-adineko populazioa hazi izanaren eta San Frantzisko eskolaren eraispenaren aurka zeuden herritarrak mobilizatu izanaren ondorioz, bazter utzi zen Nafarroako Liburu-

tegia han jartzeko asmoa, eta berriro ere hasi zen kokapen egokienari buruzko eztabaida.

Azkenean, alde zaharretik kanpoko eta udalaren jabetzako orube baten aldeko hautua egin zen, Mendebaldeko bizitegi-zonan, eta han bertan proiektatu zen orobat Goi mailako Musika Kontserbatorioa eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren egoitza eraikitzea.

2005aren hasieran, Nafarroako Liburutegia eta Filmoteka eraikitzeko agindu teknikoaren orria idatzi ondotik, lehiaketa deitu zen, 2001eko lehiaketako lau arkitekto finalistei mugatua, horiei gonbit eginenez Mendebaldeko orubera egokitutako proposamen teknikoa aurkez zezaten. Lehiaketa ebazteko izendatu zen batzordeak Manuel Ferrer aukeratu zuen -batzorde hartan Nafarroako Kultura Kontseiluko kide batek parte hartu zuen-.

Oinarrizko proiektua taxutzeko kontratua 2005eko maiatzaren 10ean sinatu zen. Zenbait lan bilera egin ziren Liburutegi Zerbitzuko langile teknikoekin nahiz Nafarroako Kultura Kontseiluko kideekin, eta hainbat bisita antolatu ziren Murtzia, Granada, Logroño eta Valladolideko liburutegietara, hango eraikinak ezagutzeko eta haietako arduradunengandik liburutegi horien funtzionamendu eta eraikuntzari buruzko iritzi eta esperientziak jasotzeko.

2005aren amaieran, Nafarroako Kultura Kontseiluko Artxibo eta Liburutegi Batzordeak lan talde bat sortzea erabaki zuen, Liburutegi Zerbitzuko zuzendariak, Ondare Historikoaren Zerbitzuko arkitekto batek, arkitekto batek eta batzordeko kide batek osatua.

Eraikinaren ezaugarriak oinarrizko proiektuan definituta, obra egiteko proiektua, bai eta instalazioen proiektu teknikoa eta obraren segurtasunari buruzko azterlana ere, berriz ere esleitu zitzaizkion Manuel Ferrerri.

Kontratuan bete beharreko baldintza teknikoaren orrian oinarrizko proiektua ezarri zen aurrekari gisa, eta, besteak beste, Nafarroako Liburutegia eta Filmotekaren zerbitzuen programa definitu zen, arloz arlo erabiltzaileentzat izanen diren postuen

estimazioa egin zen, bai eta erabilera publikorako nahiz mugaturako gordailuen edukierarena ere, eta orobat estimazioak egin ziren eraikinaren lau solairuetako eremuen azalerari buruz eta jarraibide zehatzak eman edukiari, agiriaren aurkezpenari, planoei eta prezioen taulei buruz.

Obra egiteko proiektua taxutzeko hainbat lan bilera erabakigarri egin zen liburutegiko langile teknikoekin, eta bilera horietako zenbaitetan Nafarroako Kultura Kontseiluko Artxibo eta Liburutegi Batzordeko kideek parte hartu zuten. Informazioa eta iradokizun saioak egin ziren Liburutegi Zerbitzuko arduradunekin, bereziki Liburutegi Nagusiari atxikitako langileekin, eta laneko arriskuei aurrea hartzeko ordezkari sindikalekin.

Bestalde, harremanetan jarri ziren Minusbaliatu Fisikoen Koordinakundearekin eta ONCERekin, zerbitzuen nahiz sailen irisgarritasunari buruzko informazioa eta iradokizunak jasotzeko. Horri guztiari gehitu behar zaizkio Iruñeko Hirigintza Gerentziarekin eta Goi mailako Musika Kontserbatorioaren proiektuko arkitekto arduradunekin izandako bilerak.

Nafarroako Liburutegia eta Filmoteka proiektua taxutzeko proiektu osoan zehar, Nafarroako Kultura Kontseiluko Artxibo eta Liburutegi Batzordeak eskuordetutako taldeak hainbat eta hainbat lan bilera egin ditu, eta bilera horiek guztiak irekiak eta parte-hartzaileak izan dira, baina betiere orientagarriak, halako moduz non batzordeak ez baitu beharrezko ikusi aktetan jasotzea egin zaizkion iradokizunak.

Hortaz, lankidetzeta eta elkarrizketa giroa izan da nagusi, eta bi aldeak ase utzi dituzte proiektua definitzeko prozesuak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 25ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Nafarroako Ospitaleko erradioterapia zentroari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Chivite Navascués andreak galdera egin du Nafarroako Ospitaleko erradioterapia zentroari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko azaroaren 9ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak galdera egin du Nafarroako Ospitaleko Erradioterapia Zentroarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Gaur arte 17.321.919 € ordaindu dira Erradioterapia Zentroaren eraikina eta haren zuzkidura direla eta. Horra xehetasunak:

Obra betetzea	7.908.179 euro
Erradioterapiako ekipamendua	8.129.148 euro
Simulatzaila	600.623 euro
Aurreproiektua eta proiektua	526.594 euro
Obra zuzendaritza	157.375 euro

2.- Obraren lizitazioaren zenbatekoa 11.896.957 eurokoa izan zen, eta erradioterapiako ekipamenduarena, berriz, 4.207.084 eurokoa.

3.- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak 641.772,41 euro igo du obraren zenbatekoa, honela banatuta hain zuzen ere:

Abenduaren 13ko 1793/2006 Ebazpena	267,05 euro
Urriaren 22ko 1701/2007 Ebazpena	642.034,74 euro

Urriaren 23ko
1707/2007 Ebazpena

4,72 euro

Erradioterapiako ekipamenduaren zenbatekoa 4.093.798 € igo da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen martxoaren 16ko 532/2006 Ebazpenaren bitartez; ebazpen horren bidez onetsi zen, Nafarroako Gobernuak 2006ko martxoaren 6an baimena eman ondotik, erradioterapia zentroko ekipamenduaren hornidura kontratatzeko espedientea.

Orobat, erradioterapiako simulatzaile bat erosi zen, 600.623 eurotan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen uztailaren 30eko 1249/2004 Ebazpenaren bidez.

4.- Ordaindutako ekipamenduaren zenbatekoa 8.729.771 eurokoa da, honela banatuta:

1. azeleragailua	1.540.200 euro
2. azeleragailua	1.615.635 euro
3. azeleragailua	3.185.382 euro
OTA (ordenagailu bidezko tomografia axiala)	313.000 euro
Plangintza	610.000 euro
Sare informatikoa	448.718 euro
Ekipamendua	416.213 euro
Simulatzaila	600.623 euro

Hornitu eta ordaintzeke dago zenbait ekipamendu, guztira 171,734 euro egiten duena.

5.- Ekipoek bermerik ez dutenean egiten da mantentze-lanen kontratua; beraz, orain arte ez da mantentze-lanen kontraturik egin.

6.- Ekipo guztiek dute urtebeteko bermea, abian jartzen diren unetik aitzina; hartara, horien berme-epea heldu den urteko ekainetik irailera bitarte agortuz joanen da.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 27an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, jakiteko zergatik Kultura Departamentuak seihileko oso bat behar duen Liburutegi Nagusian ekipamendua jartzeko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zergatik Kultura Departamentuak seihileko oso bat behar duen Liburutegi Nagusian ekipamendua jartzeko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko azaroaren 9ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zergatik Kultura Departamentuak seihileko oso bat behar duen Liburutegi Nagusian ekipamendua jartzeko eta ea posible den hilabetean jartzea. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako liburutegi eta filmoteka berriak lau solairu ditu: sotoa, beheko solairua eta beste bi gehiago. Azalera eraikiak 19.941,83 metro koadro egiten du, eta horietarik 18.939,44 dira erabilgarri.

Sotoaren solairuak 5.875,25 metro koadroko azalera du, eta bertan egonen da merkataritza ibilgailuentzako eta liburutegiko langileen ibilgailuentzako aparkalekua, 2.071 metro koadrokoa. Solairu horretan orobat egonen dira biltegia eta zamaketarako nasa, langileen aldagelak, dokumentuen gordailua eta ekipatu behar diren instalazio orokorrak. Erakusketa areto bat eta Filmotekako proiektzio-aretoa ere bai, 216 ikusle hartzeko modukoa (hori ere ekipatu beharra dago).

Beheko solairuan, iritsi-erraza denez, liburutegi publikoa jartzea pentsatu da, erabiltzaileei irekia, eta erakusleihoarena eginen duen kristalezko itxitura baten bitartez eskainiko dizkie bere funtsak - bibliografikoak nahiz ikus-entzunezkoak- erabiltzaileei. Ondoko eremuak izanen ditu: harrera eta informazio eremua, atsedeen hartzekoa, maileguen liburutegia, hemeroteka, mediateka eta haurren liburutegia. Hori ere hornitu beharko da, ez soilik altzariekin, baizik eta klimatizazio egokiarekin, sare informatikoekin eta abar.

Lehen solairuan egonen dira erreferentziazko obren eta espezializatuen liburutegia, Filmotekaren bulego administratibo eta teknikoak eta, ekialdeko hegalean, goiko solairuan bezala, liburuen gordailua, apalategi trinkoz hornitua.

Bigarren solairuan Nafarroako gaien liburutegia eta ikertzaileen sala egonen dira. 1.563,73 metro koadroko liburu gordailua du, eta han egonen dira liburutegiak eta lege gordailua koordinatzeko zentroa. Eremu hori lan eremu ongi argiztatu eta aireztatua izanen da.

Estalkia laua eta erabilgarria da, eta bertan paratuko dira lehen eta bigarren solairuko espazio publikoak argitzen dituzten sabai-leihoak, eta energia termiko eta fotovoltaikoa ekoizteko eguzki-panelak instalatzea aurreikusita da, eraikineko ura berotzeko. Hor jarriko da klimatizazio instalazioen zati bat.

1.814.120 dokumentu biltegitzeko ahalmena izanen du guztira -horietarik 1.565.950 gordailuetan zainduko dira-. Filmotekako filmak eta funts zaharrak gordailu berezietan egonen dira, gisa horretako dokumentuek behar dituzten ingurumen baldintzetan.

Suaren aurkako instalazio konbentzionalak ezarri ala ez, eraikina babestuta dago ur langarretatu bidezko itzalketa automatikoko sistema baten bitartez.

Beharrezan azterlana eta plangintza alde aurretik egin behar izan da eremu guztiak altzariz behar bezala hornitzeari dagokionez, liburutegi publikoen sistemarekin zerikusia duten Nafarroako Gobernuako zerbitzu guztiak eraikin berean sartzeko eta ondare bibliografikoa eta ikus-entzunezkoen ongi kontserbatzeko.

Horri guztiari gehitu behar zaio ebasketen aurkako sistemaren instalazioa.

2009an aurreratu egin beharko da Nafarroako Liburutegia eta Filmoteka altzariz hornitzea esleitzeko espedientearen tramitazioa, halako moduz non obra zibila bukatzen denean eta eraikina erabilgarri dagoenean alde aurretik esleitu den ekipamendu guztia instalatzen has daitezkeen. Horretarako epea sei hilabetekoa izanen da ustez (epea enpresa esleipen-hartzailearekin zehaztu beharko da).

Ikusita nolakoak diren askotariko zereginak bilduko dituen eraikin horren ezaugarri teknikoak, neurriak, eremuak eta bulegoak, aise uler daiteke altzarien kontratazio eta instalazioak ezohikoa behar duela, eraikinaren eginkizun berekien berezitasuna aintzat hartuta; hori dela eta, faseka egin behar da altzariz hornitze hori, eta beharrezkoa izanen da fase horiek teknikaren aldetik elkarri kateatuak eta sistematizatuak izatea, lekualdatze prozesuari ekin baino lehen, lekualdatzea ez baita hasiko tenperatura eta hezetasun konstanteak ber-

matuta egon arte, funtsek ez dezaten inolako aldaketarik paira kontserbazio egoerari dagokionez.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 26an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, jakiteko zergatik Kultura Departamentuak seihileko oso bat behar duen Liburutegi Nagusiko funtsak lekualdatzeko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zergatik Kultura Departamentuak seihileko oso bat behar duen Liburutegi Nagusiko funtsak lekualdatzeko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko azaroaren 9ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zergatik Kultura Departamentuak seihileko oso bat behar duen Liburutegi Nagusiko funtsak lekualdatzeko eta ea posible den hilabetean egitea. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Funts bibliografikoek neurri eta euskarri fisiko mota gehiago erabiltzen dituzte (liburuak, diskoak eta abar) beste funts dokumental batzuek, esate baterako artxiboek baino; halatan, artxiboek kutxa-tamaina estandarra erabiltzen dute dokumentuak gordailuetan behin betikoz biltegitratzeko.

Liburutegiak kalitate bibliografiko handiko aleen funts zahar bat du. Obra oso delikatuak direnez gero, banakako tratamendua egin behar zaie

manipulatu, biltegitratu eta ondoren birkokatzerakoan.

1.814.120 dokumentu biltegitratzeko ahalmena izanen du guztira -horietarik 1.565.950 gordailuetan zainduko dira-.

Hori dela eta, urratsez urrats egin behar da. Horra: Lekualdatzea egiteko lehendabizi kutzak bete behar dira, kontu handiz eta era ordenatuan, baina ahalik eta gehien aprobetxatuz kutxa, halako moduz non dokumentuak ez diren gehiegi mugituko kutzaren barruan.

Ondoren, kutzak ireki eta hustu behar dira eta apalategietan jarri dokumentuak, eta horietako bakoitzari banakako tratamendua eman behar zaio. Gaiaren arabera ordenatuta jarri behar dira apalategian, baina dokumentuen ezaugarri fisiko zehatzak ahaztu gabe (esate baterako, ekidin behar da formatu handiko liburuak iristen zail diren goiko apaletan egotea edo obra baten atalak apal ezberdinetan egotea eta abar).

Hortaz, lekualdatzea liburutegiko langile teknikarien ikuskapen zuzenaren pean egin behar da, eta teknikari horiek lankidetzan estuan arituko dira arestian aipatutako bi urratsetan, lekualdatzearen enpresa esleipen-hartzailearekin.

Horra epea bete eta are murrizteko beste urrats bat: liburutegi berriko altzariak esleitu eta hornitzeko egutegiaren eta dokumentuak garraiatzeko zerbitzuko kontratazioaren kontrol zehatza, eta lan tekniko berrantolatzea Nafarroako Liburutegi Nagusian, funts bibliografikoa berrantolatzeko lanei lehentasuna emateko.

Bestalde, zaintza zerbitzuak abian egon behar du, eta, gordailuak klimatizazio egoera onean edukitzeko, beharrezkoa da eraikinak tenperatura egokia izatea eta tenperatura nahiz hezetasun konstanteak erabat egonkortuta izatea.

Nafarroako Liburutegia eta Filmoteka osatuko duten funtsen lekualdatzea halako moduz eginen da non erabiltzaileari emandako arreta moztuko ez den, alde batetik itxiera nabarmenik egin gabe eta beste alde batetik instalazio berrietan dokumentuak bertatik bertara eskuratu ahal izatea planteatuz.

Horrek guztiak ezinbestean eskatzen du lan-jarraibideak zorrotz zaintzea lekualdatu eta instalatzeko fase ezberdinetan, zeinak teknikariek ezarriko baitituzte burutu baino hilabeteak lehenago.

Kontuan hartuta instalazio berrien neurriak eta konplexutasuna, funtsen aniztasuna, materialen

askotarikotasuna eta bereziki horien fintasuna eta hauskortasuna, eta horrekin batera erabiltzaileei uneoro zerbitzu emateko konpromisoa -baldin eta hori posible bada-, behar-beharrezkoa da aipatutako denbora guztia erabiltzea, berretsi behar baita helburua dela erabiltzaileenganako eta Nafarroako Liburutegia eta Filmotekak hartuko duen dokumentu-bilduma handiarenganako errespetua erabatekoa izatea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 25ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, etxebizitzaren alokairu-poltsa abian jartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du etxebizitzaren alokairu-poltsa abian jartzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko azaroaren 9ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Parlamentuak erabilitako etxebizitzak alokairuan jartzea sustatzeko eta kudeatzeko abian jarritako alokairu-poltsari buruz, eta idatzizko erantzuna eskatu. Hona Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

Lehena. Alokairu-poltsa abian jarri denetik, zenbat etxebizitza laga zaizkio sozietate instrumentalari, alokairuan emateko? Etxebizitza horien kokagune geografikoa, herrikoa eta auzokoa emana.

Erantzuna: 406 etxebizitza, honela banatuta:

Oibar	1
Altsasu	1
Antzin	1
Antsoain	23
Arre	2
Artika	3
Azagra	6
Barañain	11
Belaskoain	4
Beriain	5
Berriobeiti	1
Berriozar	9
Burlata	15
Cadreita	1
Caparroso	1
Zizur Txikia	2
Cortes	3
Elizondo	2
Lizarra	2
Etxarri-Aranatz	1
Uharte	10
Lorka	1

Mendigorria	2	Bigarrena. Lagatako etxebizitza horietako zenbat alokatu dira?
Milagro	1	
Monteagudo	1	Erantzuna: 307 alokatu dira; gainerako 99ak interesatuei eskaintzen ari zaizkie.
Mutiloabeiti	4	
Noain	4	Hirugarrena. Etxebizitza horietako zenbatek darama hiru urte baino gutxiago eraikita? Etxebizitza horien kokagune geografikoa, herrika eta auzoka emana.
Erriberri	2	
Orkoiien	6	
Iruña	205	Erantzuna: Datu horrek ez du garrantzirik sozietateak lortzeari dagokionez; beraz, ez zaio jarraipenik egin. Gutxi gorabeherako estimazioa egin da, eta emaitza 33koa izan da: 7 Iruñean, 3 Artikan, 1 Orkoienean, 2 Zizur Txikian, 2 Uharte – Iruñean eta 18 Sarrigurenen. Iruñekoak honela banatzen dira: 2 Buztintxuri – Sanduzelain, 4 Txantrea – Ezkaban, eta 1 Arrotxapean.
Azkoien	1	
Gares	3	
Zangoza	4	
Sarriguren	18	
Tafalla	10	
Tiebas	1	
Tutera	14	Laugarrena. Etxebizitza horietako zenbat egon dira hutsik bost urte baino gehiago?
Uharte-Arakil	2	
Atarrabia	9	Erantzuna: Ez dakigu, izan ere urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuko 99. eta 100. artikuluen arabera, bete beharreko baldintza bakarra da etxebizitza libreak urtebetez gutxienez hutsik egotea.
Zabaltza	1	
Zizur Nagusia	13	
Auzoka (Iruña)		
Alde Zaharra	17	Bosgarrena. Alokairurako zenbat eskari aurkeztu dira?
Txantrea - Ezkaba	24	
Etxabakoitz	7	Erantzuna: VINSAk egindako azken kanpainan, alokairuko etxebizitza babestuetarako 3.399 eskari aurkeztu ziren. Aipatu eskarietatik 1848 soilik alokairuko etxebizitza eskuratzeko ziren, eta 1541, erosteko edo alokatzeko.
Zabalguneak	6	
Ermitagaña	4	
Iturrama	4	
Mendillorri	49	Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.
Milagrosa – Azpilagaña - Santa María la Real	9	
Arrotxapea	60	Iruñean, 2007ko azaroaren 26an
Sanduzelai - Buztintxuri	15	Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Carlos Esparza Sáez
Donibane	10	

Galdera, 10/2007 Foru Legearen arabera “goi kargu” diren pertsonen buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du 10/2007 Foru Legearen arabera “goi kargu” diren pertsonen buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2007ko azaroaren 9ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera aurkeztu zuen 10/2007 Foru Legearen arabera “goi kargua” diren edo izan diren pertsonen buruz (PES-00116). Nafarroako Parlamentuko Mahaiak izapidetzeko onartu zuen galdera hori urriaren 29an. Horra Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak goi karguen bateraezintasunari buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen arabera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia da goi-karguen jardueren eta interesen erregistroa kudeatzeko organo eskuduna. Eskumen hori haren gainetik dauden organoekiko eta beste edozeinekiko erabateko independentziaz beteko du. Zabaleta jaunaren galdera aipatu Zuzendaritza Nagusiari aurkeztu zaio eta honek Txosten hau igorri du:

TXOSTENA, APIRILAREN 4KO 10/2007 FORU LEGEAREN ARABERA –FORU LEGE HORREK AZAROAREN 4KO 19/1996 FORU LEGEA ALDATU ZUEN– “GOI KARGU” DIREN EDO IZAN DIREN PERTSONEN GAINEKO PARLAMENTU-GALDERARI BURUZKOA (7-07/PES-00116).

2007ko urriaren 29an, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egingako galdera izapidetzea onartu zuen, aipatu galdera Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindu eta Nafarroako Gobernura igorri zuen, horrek Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikuluan aurrez ikusitako baldintzetan

idatziz erantzun ziezaion. Galdera hori 2007ko azaroaren 9ko 26. zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman zen argitara.

Galdera horri erantzuteko txosten hau osatu da. Txostenak, apirilaren 4ko 10/2007 Foru Legeak goi karguen bateraezintasunari buruz ezarritako aldaketen gogoeta batzuk jasotzeaz gain, egindako galderari erantzuten die.

AURRETIAZKO GOGOETAK

Nafarroako Gobernuak kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioak goi karguen bateraezintasunari buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 8.1. artikuluan arabera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia da goi-karguen jardueren eta interesen erregistroa kudeatzeko organo eskuduna. Eskumen hori haren gainetik dauden organoekiko eta beste edozeinekiko erabateko independentziaz beteko du.

Bestalde, apirilaren 4ko 10/2007 Foru Legearen bidez zenbait aldaketa egiten zaizkio azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeari, Nafarroako Gobernuak kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioak goi karguen bateraezintasunari buruzkoari. Aldaketa horien artean daude aipatu erregimenaren aplikazio-eremua zabaltzea, eta gizartearen eta fundazio publikoaren kontzeptuak Foru Lege horren arabera definitzea (Foru Legearen maila duten beste xedapen batzuekin lotuz, hain zuzen ere Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearekin, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearekin). Era berean legean jasota daude goi-kargudunen kargu-uztearen ostean aplikatuko den erregimena eta egoera horretarako aurrez ikusitako sariak eta sari horien onuradunak.

Jarraian aipatzen diren datuen aldiari dagokionez, adierazi behar da 2007ko urrikoak direla, data hori baita galderaren ataletako batean aipatzen dena eta data honetan bertan aurkeztu baitzen galdera Legebiltzarreko Erregistroan. Baliteke datu horiek egungo egoerarekin bat ez etortzea, datuak jasotzen diren aldiaren arabera aldatzen baitira.

PLANTEATUTAKO AUZIEN ERANTZUNA

1.- Apirilaren 4ko 10/2007 Foru Legeko 1. artikuluekin bat –Foru Lege horrek azaroaren 4ko

19/1996 Foru Legeko 2., 4., 7. eta 9. artikulua eta bigarren xedapen gehigarria aldatu zituen- unetan "goi kargu" izaera duten pertsona-kopurua

Pertsona-kopurua: 136.

Izen-abizenak eta kargua:

ABADIA GAUNA, FRANCISCO JAVIER, Lizarrako Barrutiko Oinarrizko Osasun Laguntzaren zuzendariordea.

ACEDO SUBERVIOLA, MINERVA, "Fundación Navarra para la Tutela de Personas Adultas" fundazioko zuzendari kudeatzailea.

AGUIRRE HERNANDEZ, CARMEN, Mendekotasunerako Prestazioen zuzendariordea.

ALBA CUADRADO, LAURA, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria.

ALBENIZ ASCORBE, LORENZA, Familiaren, Haurraren eta Kontsumoaren zuzendari nagusia.

ALVAREZ ALONSO, MARTA, Gizarte Gaien eta Garapenerako Lankidetzaren zuzendari nagusia

ARANA SORBET, MANUEL, Zergadunentzako Arreta eta Zerbitzu zuzendaria

ARANAZ JIMENEZ, TERESA, Antolamendua- ren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusia

ARANGUREN ALVAREZ, CONCEPCIÓN, Aurrekontuen eta Ondarearen zuzendari nagusia

ARBELOA FREIRE, IGNACIO, Kirol zuzendari- ordea

ARMENTIA FRUCTUOSO, JAVIER, Planetario de Pamplona SA. enpresaren kudeatzailea

ASCUNCE ELIZAGA, JESUS JAVIER, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza zuzendari nagusia.

AYERRA LAZCANO, JOSE MARIA, Osasunbidea ? Nafarroako Osasun Zerbitzuko Giza Baliabi- deetako zuzendaria.

BALDUZ UGARRIZA, FERNANDO, Nafarroako Ospitaleko Administrazio eta Zerbitzu Orokorre- tako zuzendaria.

BANDRES URRIZA, IGNACIO, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudea- tzailea.

BAQUEDANO ADRIAN, JOSE MARIA, Osa- sunbidea ? Nafarroako Osasun Zerbitzuko kudea- keta zuzendaria.

BELARRA GORROCHATEGUI, JAVIER, Berri- kuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordeko burua.

BERIAIN LURI, MARIA ISABEL, Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioko kudea- tzailea.

BERRUEZO AMATRIAIN, UXUA, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Administrazio eta Zerbitzu Oro- korretako zuzendaria.

BLASCO ALTUNA, MARIA TERESA, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Erizaintza zuzendaria

BONETA BEORLEGUI, FERNANDO, Bideko Ama Birjina Ospitaleko zuzendaria

BOULANDIER HERRERA, JOSE JAVIER, Pre- bentzio, Su-itzaltze eta Salbamendurako zuzenda- ria

CABALLERO MARTINEZ, JAVIER, Lehenda- karitza, Justizia eta Barne kontseilaria.

CABRERA ORTEGA, JOSE DOMINGO, Adi- men Osasuneko zuzendariordea.

CALVO GUITIAIN, MARIA JESUS, Nafarroako Ospitaleko zuzendaria.

CALVO JIMENEZ, JULIAN, Euskararen Gara- pen Zerbitzuko zuzendaria.

CARDEÑOSA DOMINGO, PEDRO, Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas, SA. enpresaren kudeatzailea.

CARMONA SALINAS, FELIX, Lehendakariaren Kabineteko kidea.

CASTIELLA LAFUENTE, FERMIN, Drogamen- pekotasunaren foru planeko zuzendari teknikoa.

CATALAN HIGUERAS, ALBERTO, Erakunde- kiko Harremanetarako kontseilaria eta Gobernu- ko Eleduna.

CEMBORAIN LUQUIN, JESUS, Gestión Ambi- ental Viveros y Repoblaciones de Navarra S.A. enpresaren kudeatzailea.

CHUECA FERNANDEZ, CARLOS, Gestión de Deudas SA. enpresaren kudeatzailea.

CORPAS MAULEON, JUAN RAMON, Vianako Printzea Erakunde- Kultura eta Turismo Depart- amentuko kontseilaria.

DE LA MERCED ARTANGA, JAVIER, Erakun- deekiko Harremanetarako Kabineteko burua eta Gobernu- ko Eleduna.

DEL CURA TEMIÑO, JUAN JOSE, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Langileri zuzendaria

ECHAVARREN ZOZAYA, SILVIA, Osasun Departamentuko burua.

ECHAVARRI ARRAIZA, JOSE LUIS, Herri Lan zuzendari nagusia.

ECHEVERRIA AZCONA, JESUS MARIA, Landa Garapenerako zuzendari nagusia.

ECIOLAZA CARBALLO, ANDRES, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusia.

EGUILAZ GOGORZA, GREGORIO, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusia.

EGUREN APESTEGUIA, MARIA DOLORES, Erakundeekiko Harremanetarako zuzendari nagusia.

ELCARTE ELCARTE, PILAR, Autonomia Pertsonalaren Sustapenerako eta Mendekotasunaren Prebentziorako zuzendariordea.

ERCE EGUARAS, CARLOS, Turismo zuzendari nagusia.

ERICE AGUIRRE, JAVIER, Navarra de Medio Ambiente Industrial SA. enpresaren kudeatzailea.

ESPARZA ABAURREA, JOSE JAVIER, Nafarroako Kirol Institutuko zuzendari kudeatzailea.

ESPARZA SAEZ, JOSE CARLOS, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria.

ESPARZA SANCHEZ, FRANCISCO JAVIER, Ikuskapen eta Zerbitzuen zuzendari nagusia

ESTEBANEZ ERASO, SALVADOR, Nafarroak Madrilen duen ordezkartzaren zuzendari nagusia.

EZCURDIA SORIA, MIRYAM, Herri lan, Garraio eta Komunikazio Kabineteko burua.

FERNANDEZ DIEZ, ALFONSO, Foruzaingoaren burua.

FERRO MONTIU, MERCEDES, San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoko zuzendaria.

FRANCO PUEYO, JUAN, Nazioarteko Garapenerako zuzendari nagusia.

FRIAS PARDO, ANA, Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailea.

GARCIA LOPEZ, BEATRIZ, Laguntza Espezializatuko zuzendariordea

GARCIA MALO, MARIA ISABEL, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria.

GARCIA ZUBIZARRETA, JUAN, Nafarroako Kalitatearen aldeko Fundazioko zuzendaria.

GARDE CELIGUETA, JOSE CARLOS, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea.

GARDE GARDE, CARMEN, Nafarroako Laguntza Soziosanitarioari buruzko Foru Planaren koordinatzailea.

GIMENO AZNAR, ALVARO, Laguntza Ambulatorioa Koordinatzeko zuzendariordea.

GOLDARACENA TANCO, BEGOÑA, Bideko Ama Birjina Ospitaleko zuzendari medikoa.

GONZALEZ FELIPE, PEDRO JOSE, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusia

GONZALEZ GARCIA, JOSE LUIS, Hezkuntza Bulegoko burua

GOÑI ALEGRE, BELEN, Agencia Navarra de Innovación y Tecnología, S.A. enpresaren kudeatzailea.

GOÑI UBIETO, IGNACIO JAVIER, Instituto de Calidad Agroalimentaria de Navarra SA. enpresaren kudeatzailea.

GUEMBE CERVERA, IGNACIO, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendari nagusia.

GURREA ASENSIO, EMILIO, Nafarroako Mahastizaintza eta Enologi Zentroko zuzendari kudeatzailea.

GUTIERREZ ALVAREZ, MARIA JESÚS, Berdintasun Politiken Plangintza eta Kudeaketa zuzendariordea.

HERMOSO DE MENDOZA MERINO, MARIA LUISA, Lizarrako Osasun Barrutiko zuzendaria

HERNANDEZ GALINDO, MARIANO, Tuterako Oinarrizko Osasun Laguntzako eta Adimen Osasunerako zuzendariordea

HORTA SICILIA, MIGUEL ANGEL, Riegos de Navarra SA. enpresaren kudeatzailea.

IBARROLA GUILLEN, CRISTINA, Nafarroako Iparraldeko Oinarrizko Osasun Laguntzako zuzendariordea.

IBARROLA INCHUSTA, SARA, Nafarroako Berdintasunerako Institutuko zuzendari kudeatzailea.

IRIBARREN IRURE, ESTHER, Nafarroako Ospitaleko Erizaintza zuzendaria.

IRISO VELASCO, MARIA TERESA, Gazteria zuzendariordea.

IZPURA LIBERAL, GABRIEL, Langileriaren eta Lan Harremanen zuzendariordea.

JAUURIETA DIAZ DE CERIO, JOSE JOAQUIN, Nafarroako Ospitaleko langileri zuzendaria.

KUTZ PEIRONCELY, MARIA, Osasun kontseilaria.

LABIANO BASTERO, SUSANA, Garraio zuzendari nagusia.

LAFUENTE LOPEZ, JULIO PEDRO, Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorea.

LARRAYA GALARZA, LUIS, Nafarroako Medikuntzako Gune Teknologikoko zuzendaria.

LARREA ALVAREZ, MARIA JOSE, Kudeaketa eta Giza Baliabideetako zuzendariordea.

LEZANA PEREZ, RAQUEL, Viviendas de Navarra SA. enpresaren kudeatzailea.

LOPEZ ALEMANY, JOSE MANUEL, Obras Públicas y Telecomunicaciones de Navarra SA. enpresaren kudeatzailea.

LOREA ECHAVARREN, IMELDA, Arriskuen Prebentziorako eta Lanaren zuzendari nagusia.

LOPEZ GARCIA, BEGOÑA, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko burua.

LOZANO URIZ, MARIA, Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkaria.

LURI URZAY, CARLOS, Baluarte-Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioko kudeatzailea.

MADARIAGA LOPEZ, IDOYA, Navarra de Suelo Residencial SA. enpresaren kudeatzailea.

MADINABEITIA BERAZA, AMAYA, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko burua.

MARGALLO LANA, ALBERTO, Nafarroako Lan Osasunaren Institutuko zuzendari kudeatzailea.

MARTIN DE MARCOS, ENRIQUE, Osasun zuzendari nagusia.

MARTIN MONTANER, ISABEL, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Oinarrizko Osasun Laguntzaren zuzendaria.

MARTINEZ GONZALEZ, MARIA ROSARIO, Lehendakariaren Kabineteko kidea.

MARTINEZ TORRES, JESUS MARIA, Lehendakari, Justizia eta Barne departamentuko burua.

MARTINEZ YOLDI, CERNIN, Politika Ekonomikoaren eta Garapenaren zuzendari nagusia.

MENENDEZ RODRIGUEZ, JOSE LUIS, Modernizazioaren eta Administrazio Elektronikoren zuzendari nagusia.

MIJI VIAGEM, LAURINDO, San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoko laguntza eta prestakuntza programetako zuzendari teknikoa.

MIRANDA SIMAVILLA, ALVARO, Ekonomia eta Ogasun kontseilaria.

MORENO OCHOA, JOSE LUIS, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Administrazio eta Antolaketa zuzendaria.

NIEVES NUIN, IDOIA, Tributuen Kontroleko zuzendaria.

OLMEDO CRUZ, OSCAR, Nafarroako Ekialdeko Oinarrizko Osasun Laguntzako zuzendariordea.

ORTIGOSA OCON, JOAQUIN, Nafarroako Gobernuaren Eledunaren Bulegoko eta Komunikazio zuzendari nagusia.

OTAMENDI SALDISE, ALBERTO, Nafarroako Larrialdietako Agentziako Babes Zibileko zuzendaria.

OTERMIN FAGOAGA, LUIS, Ubarmin Klinikako zuzendaria.

PAREDES GIRALDO, CAMINO, Kultura zuzendari nagusia.

PEGENAUTE GARDE, PEDRO BLAS, Toki Administrazio zuzendari nagusia.

PEREZ AYERRA, RAQUEL, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuko burua.

PEREZ DE ALBENIZ ANDUEZA, JOSE IGNACIO, Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzailea.

PEREZ-NIEVAS LOPEZ DE GOICOECHEA, CARLOS, Hezkuntza kontseilaria.

PURROY UNANUA, JOSE MARIA, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko burua.

RABADE IRAIZOZ, JUAN RAMON, Barne zuzendari nagusia.

RODRIGUEZ MARCOS, BEGOÑA, Nafarroako Mendekotasun Agentziaren zuzendari kudeatzailea.

ROIG ALDASORO, JOSE MARIA, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria.

ROMERA ALONSO, PABLO, Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras de Navarra, S.A. enpresaren kudeatzailea.

RONCALES PEREZ, MIGUEL, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko burua.

RUBIO TORRANO, ROBERTO, Justizia zuzendari nagusia.

RUIZ CIRUELOS, JOSE LUIS, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea.

SADA GOÑI, FRANCISCO JAVIER, Laguntza Espezializatuko zuzendaria.

SAINZ JIMENEZ, DAVID, Nafarroako Larrialdi-etak Agentziako zuzendari kudeatzailea.

SALANUEVA MURGUIALDAY, AMELIA, Toki Administrazioeko kontseilaria.

SANTAFE RODRIGO, JUAN, Navarra de Gestión para la Administración, S.A. enpresaren kontseilari ordezkaria.

SANTAMARIA BAINES, GEMA, Toki Administrazioeko kabineteburua.

SANTAMARIA ECHARTE, CARLOS, Instituto Técnico y de Gestión Ganadero S.A. enpresaren kudeatzailea.

SANTANA MARTINEZ, NARCISO, Tabakoaren kontrako Foru Planaren koordinatzailea.

SANZ BAREA, ANGEL, Obras Públicas y Telecomunicaciones de Navarra S.A. enpresaren kontseilari ordezkaria.

SANZ SESMA, MIGUEL, Nafarroako Gobernu-ko lehendakaria.

SANZ VILLAR, JAVIER, Instituto Técnico y de Gestión Ganadero, S.A. enpresaren kudeatzailea.

SANZBERRO ITURRIRIA, BEGOÑA, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilaria.

SEBASTIAN LABAYEN, ILDEFONSO, Lehendakaritza zuzendari nagusia.

SOLA OLLO, ANDRES, Navarra de Infraestructuras Locales, S.A. enpresaren kudeatzailea.

SOLA RUBIO, REGINO, Tuterako Osasun Barrutiko zuzendaria.

URIEN ANGULO, BEGOÑA, Enpresa zuzendari nagusia.

VAZQUEZ LOPEZ, JOSE MANUEL, Kudeaketa Ekonomikorako eta Antolaketaren Garapenerako zuzendariordea.

VICENTE GOICOECHEA, MARIA JESUS, Immigrazioarako Bulegoaren koordinatzailea.

VITRIAN ARIGITA, JAVIER, Nafarroako Larrialdietako Agentziako zuzendari kudeatzailea.

YURSS ARRUGA, JOSE IGNACIO, Nafarroako ospitaleko zuzendari medikoa.

2.- 2007ko urrian "kargu-uzteen ordainsaria" izeneko hileroko prestazio ekonomikoa jaso zuten pertsonen kopurua –prestazio hori azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeko 3. bis artikuluko 2. idatz-zatian dago ezarria eta 10/2007 Foru Legeko 2. artikulua emandako testuarekin bat dator.

Pertsona-kopurua: 4.

3. bis artikuluko bigarren paragrafoaren arabera, lau pertsona horiek "kargu-uzteen ordainsari" gisa jasotako zenbatekoa aldatzen da bakoitzaren egoera pertsonalen arabera. Hauek dira pertsona horiek eta beren karguak:

BURGUETE TORRES, JOSE ANDRES, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria

CAMPOY ZUECO, LUIS, Hezkuntza kontseilaria

ECHARTE ECHARTE, JOSE JAVIER, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria

PALACIOS ZUASTI, JOSE IGNACIO, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria

3.- Uneotan, 2007ko urrian, "kargu-uzteen ordainsaria" izeneko hileroko prestazio ekonomikoa jasotzen ari diren pertsonen kopurua –prestazio hori azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeko 3. bis artikuluko 3. idatz-zatian dago ezarria eta 10/2007 Foru Legeko 2. artikulua emandako testuarekin bat dator. Pertsonen izen-abizenak eta izandako karguak:

Pertsona-kopurua: 3.

Aipatu 3. bis artikuluko bigarren paragrafoaren arabera, hiru pertsona horiek "kargu-uzteen ordainsari" gisa jasotako zenbatekoa aldatzen da bakoitzaren egoera pertsonalen arabera. Hauek dira pertsona horiek eta beren karguak:

Izen-abizenak eta kargua:

ANDEREZ GONZALEZ, ALBERTO, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusia.

DIAZ MORENO, ENRIQUE, Industria eta Merkataritza zuzendari nagusia

IRIBAS SANCHEZ DE BOADO, NICOLAS, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzailea

4. Nafarroako Foru Ogasunaren kargura ordaintzen diren hileroko prestazio ekonomiko horien (19/1996 Foru Legeko 3. bis artikuluko 2. eta 3. idatz-zatiak) zenbatekoa guztira (enpresa

publikoak, erakunde autonomoak eta, oro har, administrazio guztia barne dela):

2. eta 3. erantzunetan aipatutako interesdunek 2007ko urrian osotara jaso dituzten prestazioen zenbatekoa 22.641,95 eurokoa da.

5.- Uneotan bai foru erkidegoko administrazioan, bai bere erakunde publikoetan, % 25eko osa-

garri pertsonala jasotzen ari diren pertsonen kopurua –osagarri hori azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeko 3. bis artikuluko 5. idatz-zatian dago ezarria eta 10/2007 Foru Legeko 2. artikuluko emandako testuarekin bat dator-. Pertsona horien izen-abizenak, egun duten kargua eta lehenago izandako kargua:

Pertsona-kopurua: 8.

IZEN-ABIZENAK	IZANDAKO KARGUA	POSTUA 07-10-31
ALLI FERNANDEZ, JOSE LUIS	NAFARROAKO GIZARTE ONGIZATEAREN INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA	GOI MAILAKO TITULUDUNA
ANDEREZ GONZALEZ, ALBERTO	FUNTZIO PUBLIKOAREN ZUZENDARI NAGUSIA	INOLAKORIK EZ
GALLO FERNANDEZ, MARIANO	NAFARROAKO LAN OSASUNAREN INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA.	INSPEKTORE MEDIKOA
SERRANO AZCONA, ANGEL	TOKI ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARI NAGUSIA	NAFARROAKO ADMINISTRAZIO AUZITEGIKO KIDEA
PEREZ DE VIÑASPRE MARQUEZ, FERNANDO	HIZKUNTZA POLITIKARAKO ZUZENDARI NAGUSIA	DEPARTAMENTUBURUA
ROMERA GUTIERREZ, JOSE MARIA	VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA DEPARTAMENTUKO ZUZENDARI NAGUSIA	DEPARTAMENTUBURUA
YERRO VILLANUEVA, TOMAS	VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA DEPARTAMENTUKO ZUZENDARI NAGUSIA	DEPARTAMENTUBURUA
TAJADURA ISO, FEDERICO	KONTSEILARIA	B.S.E./LAGUNTZAILEA

(1) Andérez jaunak bere egoera aldatu zuen 2007ko urrian.

6. Nafarroako Foru Ogasunaren kargura ordaintzen diren hileroko prestazio ekonomikoen zenbatekoa guztira (19/1996 Foru Legeko 3. bis artikuluko 5. idatz-zatia), foru administraziokoak eta bere erakunde autonomoetakoak.

5. erantzunean aipatutako interesdunek 2007ko urrian osotara jaso dituzten osagarrien zenbatekoa 2.731,95 eurokoa da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 24an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, “Izarbeibarreko jarduera ekonomikoen eremua” izeneko industrialdeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Samuel Caro Sádaba jaunak galdera egin du “Izarbeibarreko jarduera ekonomikoen eremua” izeneko industrialdeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betetz, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko azaroaren 9ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Samuel Caro Sádaba jaunak galdera egin du Izarbeibarreko jarduera ekonomikoen eremuari buruz, eta idatzizko erantzuna eskatu. Hona Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1.- Gure erkidegoaren eta eskualdeen garapen orekatua kontuan hartuta, nola justifikatzen du zure departamentuak “Izarbeibarreko jarduera ekonomikoen eremua” izeneko 1.189.000 metro koadroko industrialde bat egiteko proposamena, Obanoseko eta Gareseko planeamenduetan jasotako 800.000 metro koadro inguruko industrialdearen ondo-ondoan?

Oro har, ekimenen sustatzaileei dagokie lurralde eta hirigintzako planak justifikatzea.

Galderan adierazitako planteamendua udalez gaindiko plan sektorial baten bidez izapidetzen ari da. Plan hori Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari atxikitako NASUINSA enpresa publikoak sustatu du (2006ko abenduaren 28ko Nafarroako Gobernuaren erabakiak udalez gaindikotzat deklaratu zuen “Izarbeibarreko jarduera ekonomikoen eremua” plan sektoriala, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuak Nasuinsaren bidez sustatua, 15. NAO, 2007ko otsailaren 2koa).

Hori horrela, akordio hori besterik ezin dezaket aipatu, non plana publikoa egin zenean lurraldeari, ingurumenari eta sektoreari buruz eginiko hausnarketak jaso ziren. Horiek noski ebazte-fasean osatuko dira, jasotako alegazioak eta Lurraldearen Antolamenduko Batzordearen txostena kontuan izanik, eta Nafarroako Gobernuak udalez gaindiko plan sektoriala onartu aurretik.

2.- Industria-arloko zer erabileratarako aurreikusi du Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak erabiltzea “Izarbeibarreko jarduera ekonomikoen eremua” izeneko poligonoa, zeina udalez gaindiko plan sektorial gisa onartu baitzuen Nafarroako Gobernuak 2006ko abenduaren 28an?

Galdera horren edukia, argi eta garbi, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren eskumenetatik kanpo dago. Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari dagokio galdera horri erantzuna ematea. Aipatu departamentuak honakoa adierazi du:

– Galderan aipatutako poligonoaren izapidetze administratiboa oraindik ez da osatu. Hain zuzen ere, Lurraldearen Antolamenduko Batzordeak ez du udalez gaindiko plan sektorialari buruzko behin betiko txostenik egin, eta hori da plana Gobernu Kontseilura igorri baino lehen egin beharreko iza-pidea, Gobernu Kontseiluak azken balorazioa egin eta onar dezan.

– Ildo horretatik, goizegi da jarduketa horren balizko industria-ezarpenei buruzko aurreikuspenak egiteko.

– Nafarroako Gobernuak oro har ez ditu industrialrako lurzoruak sustatzen bertan enpresa zehatzak ezartzeko, baizik eta enpresa-guneak sustatzen ditu bertan etorkizunean inbertsio berriak egin edo Foru Komunitatean jadanik kokatutako enpresak haz daitezten.

– Legardako poligonoan balizko industria-ezarpenak identifikatzeak enpresa-proiektu jakin bati dagokion prozedura administratibo guztia aintzat ez hartzea ekarriko luke, udal esparruan zein autonomikoan. Ezarpen horiek prozedura administratibo arautu bati daude lotuak, zeinak txosten, baimen eta lizentzia ezberdinak eskatzen dituen enpresa ezarpen bati oniritzia eman aurretik.

Aurreko hausnarketak alde batera utzita, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ez dauka aipaturiko udalez gaindiko plan sektorialean definitutako eremuan inolako enpresarik ezartzeko proposamenik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 28an.

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Carlos Esparza Sáez

Galdera, Nafarroako Gobernuak, Foruzaingoaren Altsasuko eta Elizondoko prebentzio taldeak direla eta, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko hartu dituen neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Paula Kasares Corrales andreak galdera egin du Nafarroako Gobernuak, Foruzaingoaren Altsasuko eta Elizondoko prebentzio taldeak direla eta, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko hartu dituen neurriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 31ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Paula Kasares Corrales andreak galdera aurkeztu zuen Altsasu eta Elizondoko Foruzaingoaren plazei buruz. Parlamentuko Mahaiak izapidetzeko onartu zuen galdera hori 2007ko urriaren 19an. Horra Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernua, bere oinarritzko zeregina den aldetik, herritar guztien eskubideak kontuan hartzen eta asetzen ahalegintzen da. Eskubide horiek legeek bermatzen dituzte, horregatik, gobernuak kasu guztietan legeak eta horiek garatzen dituzten araudiak betetzen ditu. Hori da alor guztietan eta bereziki euskararen erabilerrari dagokionez egiten dena.

Zehazki, eta Altsasu eta Elizondoko Foruzaingoaren polizia-etxei dagokienez, adierazi behar da 2006ko abenduaren 29an zabaldu zirenetik, bertara bidalitako foruzainen eta tokiko herritarren arteko harremanak otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretuko 10. artikuluan ezarritakoaren arabera izan direla –aipatu artikuluan euskararen erabilera arautzen da Nafarroako Administrazio Publikoetan–. Hona artikuluko horrek dioena:

“1. Ereku euskalduneko bereko pertsona fisiko nahiz juridikoei igortzen zaizkien komunikazio eta

jakinarazpenak ele bitan egiten dira, ez badute behintzat interesatuek bi hizkuntza ofizialetarik bat bakarria erabiltzea espresuki eskatzen, Euskarari buruzko Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Harremana herritarrek edo beste administrazio publikoak interesatuak diren prozeduren ondoriozkoa denean, Foru Dekretu honen 8.2 eta 9.5 artikuluetan azaltzen denari jarraikiz, gaztelaniaz, euskaraz edo ele bitan idatzitako inprimaki, eredu eta formularioak erabili ahalko dituzte.

3. Ahozko komunikazioetan, funtzionarioek zerbitzua eman ahalko diete administrazioari azken hauek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean.”

Foru parlamentariak aipatutako plazak ez dira plantilla organikoan ageri euskara baldintza edo meritutzat izanik, beraz, plaza horiei zegokien hautaketa prozesuan baldintza hori ez zen eskatu edo baloratu.

Alabaina, herritarren hizkuntza-eskubideak gauzatzeko asmoz, Nafarroako Gobernuak, hizkuntza zirkuitu normalizatuak ezartzen dituzten politiken barruan, eta abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 15. artikuluan ezarritakoa betez (honela dio: “Administrazio Publikoek (...) gaitzaren progresiboa sustatuko dute, eremu euskaldunetan lan egiten duten langileek euskara erabili dezaten”), aipatu deialdia ebatzi ostean, lanpostu horiek hautatu dituzten pertsonak prestatzeko plana jarriko du abian, gaitasun ikastaroak kasuan kasuko beharretara egokituz. Horrela, bi polizia-etxeetara bidalitako langileen inguruan hartutako neurriei jarraipena emanen zaie.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 20an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, Leitzako Plazaolako tren geltoki zaharra zaharberritzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Leitzako Plazaolako tren geltoki zaharra zaharberritzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko azaroaren 20ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko noiz ekin behar dion Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak Leitzako Plazaolaren antzinako geltokiko teilatuak konpontzeari eta erantsitako eraikinak eraisteari. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Hurrengo hilabeteotan erabakiko da geltokia osatzen duten eraikinei emanen zaien erabilera zein izanen den, eta horren arabera, teilatuak barne hartuko dituen jarduera-plana taxutuko da.

Duela gutxi instalazioak Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuari atxiki zitzaizkionetik, hark azaldu zuen Leitzako Plazaolaren antzinako geltokiko eraikinak jarduera turistikoetarako erabiltzeko (Bide Berdea bereziki), eta ekimen hori departamentuaren, udalaren eta Plazaolako partzuergoaren artean gauzatzeko nahia.

Leitzako geltokiko eraikinei dagokienez, 2005eko azaroan Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria Leitzako alkatearekin bildu zen eta jakinarazi zion asmoa zuela, ibilbidean zehar egindako jardueren artean, geltokiko eraikinak eraberritzeko eta balizko proiektu turistikoak aztertu nahi zituela, geltokiko eraikinen erabilera udalaren eskuetan uzteko aukera ere aztertuz. Ildo horretatik, departamentuak udalari proposamen zehatza egiteko eskatu zion.

Kultura eta Turismo kontseilariak, Leitzan bere taldearekin bilera bat izan ostean, eta Leitzako alkateak eta Plazaolako Turismo Partzuergoko

lehendakariak besteak beste lagunduta, eraikinak bisitatu zituen eta jakin ahal izan zuen aipatu eraikinak egurra, makineria eta beste material batzuk gordetzeko erabiltzen zirela. Hori horrela, udalari berehala eskatu zitzaion Gobernuari pertsonen eta beren helbideen zerrenda igortzeko, balizko jarduerak aztertzen hasi baino lehen pertsona horiei eraikinak utz zitzaten eskatu ahal izateko.

Eskaera horri erantzunez, udalak apirilaren 3an eraikinetako erabiltzaileen zerrenda igorri zion departamentuari. Eraikinak husteko errekerimenduak izapidetu ziren, eta beharrezkoa izan zen interesdunei zeregin horretarako denbora ematea.

Geroago, Kultura eta Turismo Departamentuko teknikariek, udalak izendatutako beste pertsona batzuekin batera, ikuskapen bisita bat egin zuten, eraikinetan hartu beharreko neurriak aztertzeko.

Lan bilera batzuen ostean, 2006ko uztailean udalak geltokiko eraikinak eraberritzeko oroitidazki baloratua igorri zuen, non tokiko altzari zaharrak zaharberritzeko zurgintza, ebanisteria eta zaharberritze lantegi bat eratzea proposatzen zuen. Departamentuak proposamenaren egokitasun turistiko eskasa ikusita, ez zuen egokitzat jo eta hala jakinarazi zion udalari.

Bien bitartean, denbora irabazteko, departamentuak hiru eraikinetako teilatuak eraberritzeko proiektu bat egiteko eskatu zuen. Horren aurrekontua 291.967 eurokoa zen.

Aurreproiektua behin amaituta, departamentua Plazaolako partzuergoarekin harremanetan jarri zen, eraikinei emanen zitzaien erabilera zehaztu aurretik teilatuak konpontzen hastea egokia ote zen jakiteko, jarduera horrek geroko erabakia baldintza zezakeelako. Egoki iritzi zioten udal hauteskundeen ostean eratuko zen udalak auzi horri buruz zuen iritzia adierazi arte itxaroteari.

Aipatu hauteskundeen ostean, departamentua berriro ere harremanetan jarri zen herriko alkate berriarekin, eskuragarri zegoen informazioa helarazi zion eta geltokiaren etorkizunak bide berdearekin lotuta egon behar zuelako ustea adierazi zion: ostatu turistikoa, turismo aktiboko zentroa, etab. Alkateak jakinarazi zuen ideia horrekin bat zetorrela eta hobe zela eraikinari emanen zitzaien erabilera erabaki baino lehen teilatuekin ez hastea, izan ere, geltokian aterpe turistiko bat egitea erabakitzen bazen, eraikinaren altuera igo beharko zen.

Azkenik, hilabete honen erdialdean lan bilera bat egin zen alkatearekin, eta horrek udala, Turismo partzuergoa eta Toki Garapeneko Agentzia eztabaidatzen ari diren ideien berri eman zion departamentuari. Balizko erabileren artean honakoak daude: aterpea, taberna, turismoa kudeatzeko bulegoa, herri-kirolen museoa, bizikleta-biltegia, etab. Geltokiari hirugarren solairu bat emateko aukera aztertzen ari dira (bi ditu) eta biltegi handiari (bat dauka) bigarren solairu bat emateko aukera ere. Altuera handitzeko behar horren aurrean, egoki iritzi zaio dagokion erabakia hartu arte teila-tuekin ez hasteari.

Departamentuak adostasunez aritzeko beharra planteatu zuen, eta eremuan BTT zentro bat sartzeko ideia ere iradoki zuen.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak eraikin horiek erregistroan noiz jasoko dituen planteatzen zuen galderari dagokionez, adierazi behar da dagoeneko erregistratuak daudela, Iruñeko 3. Jabetza Erregistroan, 2007ko azaroaren 7ko datarekin.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko abenduaren 4an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, haurtzaindegietan egiten diren kontrolei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du haurtzaindegietan egiten diren kontrolei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko azaroaren 20ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren bederatzigarren xedapen iragankorraren arabera, "Hiru urtetik beherako haurrak hartzen dituzten eta Lege hau indarrean sartzean haur-hezkuntzako ikastetxe gisa baimenduta ez dauden zentroek, edo eskolaurreko hezkuntzako ikastetxe gisa baimenduta daudenek, Gobernuak autonomia-erki-degoei kontsulta egin ondoren finkatzen duen epea izango dute ezartzen diren gutxieneko baldintzetara egokitzeko".

806/2006 Errege Dekretuaren bitartez hezkuntza sistemaren antolamendu berria aplikatzeko egutegia zehaztu zen. Hona bere 3.2 artikuluan dioena: 2008/09 ikasturtean hezkuntza administrazioek haur hezkuntzako lehen eta bigarren zikloi dagozkien ikasketak ezarriko dituzte eta alde batera utziko dira Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legean (LOGSE) haur hezkuntzako lehen eta bigarren zikloetarako eta Hezkuntza Kalitate Legean (LOCE) eskolaurrerako definitutakoak, aldez aurretik ezarri dituzten autonomietan.

Errege Dekretu berak honakoa dio bere 4. artikuluan : Haur hezkuntzako lehen zikloa ezarri baino lehen, eta 2007ko abenduaren 31 baino lehen, hiru urtetik beherako haurrak dituzten ikastetxeek bete beharreko baldintzak ezarriko dira, LOEren 14.7. artikularekin bat.

Nafarroako Gobernuak, epea amaitu baino lehen, martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretua argitaratu zuen, Nafarroako Foru Komunitatean haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen duena eta ziklo hori eskaintzen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak ezartzen dituena.

Bere zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, "Haur hezkuntzako lehen zikloko irakaskuntza 2008/2009 ikasturtean ezarriko da orokorrean. Hala ere, foru dekretu honetan eskatutako baldintzak betetzen dituzten ikastetxeek lehenago tramitatzeko eta lortzeko ahal dute horretarako baimena".

Lehen eta bigarren xedapen iragankorren arabera, hiru urtetik beherako haurrak hartzen dituzten ikastetxe publiko eta pribatuak irakaskuntza hori ezartzen denetik hiru urteko epea izaneko dute eskatzen diren baldintzetara egokitzeko eta beharrezkoa den baimena eskatzeko, 28/2007 Dekretuaren IV. Tituluan ezarritakoari jarraikiz.

Iragankortasun hori kontuan izanik, eta ikastetxeak 28/2007 Foru Dekretuari atxikitzen ez zaizkion bitartean, 41/2005 Foru Aginduak arautuko ditu Hezkuntza Departamentuarekin lankidetzan hitzarmena duten udal ikastetxeak –foru agindu horrek 0tik 3 urtera bitarteko haurrentzako udal titulartasuneko ikastetxeen kudeaketaren eta ekipamenduaren finantzaketa arautzen du–.

Ikastetxe publiko hauen egokitasuna Hezkuntza Departamentuko teknikariek egiaztatuko dute. Funtsean, haur hezkuntzako lehen zikloaren ataleko teknikariak arduratuko dira ikastetxeak finantzatzeaz, kudeatzeaz eta pedagogia eta antolamendu gaietan orientatzeaz; Obren atala instalazioen eta eraikinaren baldintzak ikuskatzeaz arduratuko da; eta Ikuskapen Zerbitzua ikastetxeen abiarazte eta funtzionamenduaren urteko egutegiaz.

Gaur egun, eta 28/2007 Foru Dekretuak baimentzen duen iragankortasuna aintzat hartuz, ikastetxe pribatuak haurtzaindegi moduan irekitzeko lizentzia badute. Irekitzeko baimen horrek hiru urtetik beherako haurrak zaintzeko baimena ematen die eta udal administrazioen mende dago.

Ikastetxe publiko eta pribatuak 28/2007 Foru Dekretuak agindutako baldintzak betetzeko duten trantsizio aldia igarota, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuari egokituko zaio Nafarroako haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan hezkuntza arloko ikuskapen lanak egitea, 28/2007 Foru Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarrian adierazten denez.

La Casita haurtzaindegiari dagokionez, Hezkuntza Departamentuak ez du inolako espedienterik ireki, egun ez baitago lotura administratiborik aipaturiko haurtzaindegiaren eta Hezkuntza Departamentuaren artean.

Dirudienez, parlamentariak aipatu du familia batek haurtzaindegi horri haurrak gaizki tratatzeagatik eta zabarkeriagatik salaketa jarri ziola; gertakari horiek komunikabideetan ere agertu ziren.

Urriaren 29an, haur hezkuntzako lehen zikloko atalean familia horri arreta eskaini zitzaion; horrek gertakarien berri eman zuen, eta instantzia bat aurkeztu zuen non informazio espediente bat irekitzeko eskatzen zuen eta bere alabak jasandako erasoak salatzen zuen.

Eskari horri emandako erantzunean, kasuari buruzko informazioa aztertu eta Departamentuko zerbitzu juridikoei galdetu ostean, adierazi zen,

indarrean dagoen araudia kontuan hartuta, ezinezkoa dela kasu honi buruzko informazio edo ikerketa espedienterik irekitzea, administrazio honek ez baitu horretarako eskumenik; horrela, eta aurretik adierazitakoa aintzat hartuta, eskaria gaur egun horretarako eskumena duen administrazioari igortzeko proposatu zitzaion.

Gerora jakin ahal izan dugunez, erakundeak ez du zigorrik izan familiak jarritako salaketaren ondorioz.

Iruñean, 2007ko abenduaren 4an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas
López de Goicoechea

Galdera, artelanen zaharbertzaileen egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du artelanen zaharbertzaileen egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko azaroaren 20ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du artelanen zaharbertzaileen egoerari buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

1. Zein baldintza bete behar ditu enpresak dirulaguntza eskatzen duenak hura eskuratu ahal izateko?

Enpresak ez du baldintzarik bete behar dirulaguntza eskatzen duenak hura eskura dezan.

Deialdia arautzen duten oinarriek (aurtengoa Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren otsailaren 16ko 36/2007 Foru Aginduaren bidez onetsi zen, 2007/03/30eko 39. NAO) 4.3.c) puntuan adierazten dutenez, dirulaguntza eskatzen duenak egiten duen lanaren oroitidazki bat aurkeztu beharko du, non gutxienez ondasuna

bera eta horren kontserbazio-egoera deskribatu beharko diren; esku hartzeko proiektua; esku hartzeko irizpideak; parte hartuko duten langileak; aurrekontua eta burutzeko epea. Horretarako izendatuko den balorazio batzordeak ziurtatu beharko du Nafarroako kultur ondarea osatzen duten ondasunekin arituko diren pertsonak beren prestakuntza bermatzen duen titulazioa badutela.

Ildo horretatik, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Departamentuak bikaintasuna bilatzen du lan horietan, gainerako autonomia erkidegoekin batera arituz eta ondasun kulturalen kontserbazio eta zaharbertzaileen alorreko profesionalen goi-mailako prestakuntza azpimarratzen duten instituzio erakundeekin gomendioak aintzat hartuz (1999ko Paviako dokumentua). Halaxe jasota dago Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legean.

Geroago, emandako dirulaguntzari dagokion lana egiten duen enpresak diruz lagundutako proiektua gauzatu beharko du, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak dirulaguntza eman zueneko unean ezarritako gidalerro teknikoak aintzat hartuz; Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak ondasunaren egiaztatze eta ikuskatze lanak egiten ditu; enpresak diruz lagundutako proiektuan aldaketarik eragin dezakeen edozein gertakari berri emanen du, esku hartzeko proiektuan egiten den aldaketa orok Kultura Zuzendaritza Nagusiaren baimena izan beharko baitu, deialdia arautzen duten oinarriek ezarri moduan.

2. Ezinbestekoa al da, laguntzak eta ez administrazioarekiko kontratuak izaki, unibertsitate-titulazioaren bat edukitzea? Hala bada, zein titulazio onartzen dira?

Bai, ezinbestekoa da, Nafarroako kultur ondarea osatzen duten ondasunekin aritzeko baita.

Egun indarrean dauden titulazioak honako hauek dira: Arte Ederretako lizentziatura (zaharberritze-espezialitatea), Ondasun Kulturalen Kontserbazio eta Zaharberritze diplomatura edo Europar Batasuneko titulu baliokidea.

Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren (2007/10/30eko 260. Estatuko Aldizkari Ofiziala) babesean –horrek unibertsitateko ikasketa ofizialen antolaketa ezartzen du eta bere oinarrian Unibertsitateen Lege Organikoa dago, apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoa, zeinak abenduaren 21eko Unibertsitatei buruzko 6/2001 Lege Organikoa aldatzen duen– eta Europako goi mailako hezkuntza-gunea eratzeke asmoz, Ondasun Kulturalen Goi Mailako Kontserbazio eta Zaharberritze Eskoletan Ondasun Kulturalen Kontserbazio eta Zaharberritze Gradua sortzeko lanean ari dira (4 urteko prestakuntza). Gradu horrek zaharberritzaile guztiei emanen liekeen titulazio akademikoa aurreko lizentziaturaren maila berekoa izanen litzateke. Aipatu Ikasketa Plan horren zirriborroa nahiko aurreratua dago.

3. Titulazioa eduki behar al dute enpresa osatzen duten guztiek?

Ondasun higigarriaren kontserbazio eta berriztapen tratamenduan esku hartuko duten zaharberritzaile guztiei eskatzen zaie titulazioa izatea.

4. Ba al du Vianako Printzea Erakundeak laguntza horietarako erabiltzen dituen enpresen edo pertsonen zerrendaren bat?

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak ez du inongo enpresa edo profesionalengana jotzen laguntza horietarako. Ondasunen titularrak izan ohi dira haiek nahiago dituztenengana jotzen dutenak.

Departamentuari tratamendu jakin bat egiteko profesional bati buruz galdetzen zaionean, lan hori burutzeko gai diren hiru enpresaren zerrenda igortzen da eskumena duen unitatearen bidez, eta beharrezkoa balitz edo interesdunak eskatuko balu, informazio gehiago eskaintzen zaio eta esku hartzeko proiektu bat baino gehiago eskatzeko gomendioa ematen zaio.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko abenduaren 4an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Musika Kontserbatorioa egiteko kontusailari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du Musika Kontserbatorioa egiteko kontusailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko azaroaren 9ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Galdera

– 41120-410001-6020-325103 kontusailaren aurrekontu bateratua, baimendua, erabilia eta bete gabekoa.

– Kontusail horren kargura eginiko jarduerak eta ordaindutako diru kopuruak.

Erantzuna

41120-410001-6020-325103 KONTUSAILA			
Aurrekontu bateratua	Aurrekontu baimendua	Aurrekontu erabilia	Bete gabeko aurrekontua
700.000 €	409.378,47 €	409.378,47 €	0,00 €

41120-410001-6020-325103 KONTUSAILA	
Eginiko jarduerak	Ordaindutako jarduerak
Mendebaldea auzoko orubearen hesiaren konponketa: 3.378,47 €	Mendebaldea auzoko orubearen hesiaren konponketa: 3.378,47 €
Proiektuaren erredakzioa: 406.000 €	

Proiektuaren erredakzioa ordaintzeke dago, espedientea oraindik izapidetzen ari baita.

Iruñean, 2007ko azaroaren 28an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas
López de Goicoechea

Galdera, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Leitza eta Doneztebe arteko NA-170 errepide zatiari dagokionez dituen aurreikuspenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Leitza eta Doneztebe arteko NA-170 errepide zatiari dagokionez dituen aurreikuspenei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko azaroaren 20ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du 2002-2009 errepideei buruzko II. plan zuzendarian Leitza-Donztebe NA-170 errepiderako aurreikusita dauden lanei buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Galdera

Leitza eta Doneztebe arteko NA-170 errepidean areka zanpagarria jarri eta asfaltatzea hein batean hobetu ondoren, hauxe jakin nahi dut:

– Zein aurreikuspen dauzka Nafarroako Gobernu departamentuak II. Errepideen Planean (2002-2009) errepide horretarako jadanik aurreikusita zeuden zabaltze eta hobetze jardueri amaiera emateko?

– Zehaztu, kasua bada, errepide hori hobetzeko jarduketa-faseak, epeak eta aurrekontuak.

Erantzuna

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren asmoa da Leitza eta Doneztebe arteko NA-170 errepidean areka zanpagarria jartzeko eta beharrezkoa den lekuan asfaltatzea hobetzeko lanak 2007ko amaiera eta 2008ko hasiera bitartean amaitzea.

Lanak Mugairiko zainketa zentroaren menpeko errepideen zainketa integralaren kontratuaren baitan egiten ari dira. Areaka zanpagarria 10+238 p.k.-tik 23+599 p.k.-raino jarriko da. Denborak galarazten ez badu, lanak etenik gabe egingen dira. Jarduketa osorako aurreikusitako kostua 383.406,23 eurokoa da (BEZa barne).

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko abenduaren 4an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Nafarroako N-1, A-15 eta N-121 errepideen garbiketaren eta mantentzearen arduradunari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako N-1, A-15 eta N-121 errepideen garbiketaren eta mantentzearen arduradunari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko azaroaren 20ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako errepide batzuen garbitze eta mantentze lanei buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

- Nor arduratzen da Nafarroako errepideak garbitzeaz eta mantentzeaz? Zehazki N-1, A-15 eta N-121 errepideen datuak nahi ditugu.

Nafarroako Gobernuak lehendakariak abuztuaren 16an emandako 12/2007 Foru Dekretuak bere 11. artikuluan honakoa zehazten du Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren esku-
men esparruari buruz:

“Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ondotik zehazten diren arloetan bereganatutako eskumenak Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak baliatuko ditu: Nafarroako errepide sarea proiektatu, egin, zaindu, ustiatu eta defendatzea; ...”

Beraz, N-1, A-15 y N-121 errepideak Nafarroako Errepide Sarean daudenez, horien garbitze eta mantentze lanak Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari dagozkio. Funtzio horiek Herri Lan Zuzendaritza Nagusiaren Zainketa Zerbitzuari atxikitako Zainketa Atalak betetzen ditu, otsailaren 24ko 47/2005 Foru Dekretuaren 23. eta 25. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

Proiektu, Trenbide eta Obra Hidraulikoen Zerbitzuan dagoen Ingurumena Babesteko Atalari dagokio errepideari erantsitako lorategi-zonak zaintzea, aipatu 47/2005 Foru Dekretuaren 11. eta 14. artikuluetan ezarri moduan.

- Zer ekipo daude garbitze eta mantentze lan horiek egiteko?

Garbitze lanak egiteko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Zainketa Zerbitzua bere esku ditu zainketa zentro ezberdinen menpeko errepideen zainketa integralerako kontratatutako enpresen ekipoak, eta garbiketarako obra unitate bakoitzeko ordaintzen dira.

Neurri txikiago batean, administrazioaren bitartekoak ere garbitze eta mantentze lanez arduratzen dira.

Bestalde, Ingurumena Babesteko Atalak Gestión Ambiental, Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A. sozietate publikoaren esku utzi ditu errepideari erantsitako lorategi-zonen mantentze lanak.

- N-1 errepidean mantendu egiten dira Ziordia eta Altsasu (mendebaldeko sarrera) arteko lorategi-zonak; hiru pertsonak osatutako lantaldea arduratuko da tarte horretan belarra mozteaz, ureztatzeaz, inautetaz, ongarritzeaz, etab., zeregin bakoitzerako material eta tresna egokiak erabiliz. Udaberrian lantaldea sei pertsonak osatuko dute, landare-hazkondearen unerik gorenari aurre egiteko.

- N-1 errepideak Altsasu eta Etxegarate artean duen zatian ez da halako lanik egiten, nahitaezkoa den landareztatze proiektua burutu gabe dagoelako.

- A-15 errepidean mantendu egiten dira Irurtzun eta Gipuzkoa arteko lorategi-zona guztiak eta lantaldeak hiru pertsonak osatuko dituzte, zeregin bakoitzerako material eta tresna egokiak erabiliz.

- N-121 errepidean lorategi-zonak tarte osoan mantenduko dira. Lantaldeak hiru pertsonakoak izanen dira, lan-eremuaren arabera ezberdinak izanen direnak (Kantaurialdea, Iruñerria, Tafallaldea eta Tuterldea).

- Zenbatean behin garbitzen dira bideak, bazterbideak eta aipatu errepideetako inguruak?

Errepide guztien –aipatutakoak barne– garbitze eta mantentze lanen maiztasuna jarraian zehazten diren faktoreen mende dago: aurrekontuak, bideen erabileratik eratorritakoak eta urtaroei, klimari eta meteorologiari lotutako faktoreak.

Errepideetan gorabehera edo istripu gehiago edo gutxiago egotea, errepideko lanak, ur edo elur ekaitzak, haize-ekaitzak..., udak edo udaberriak oso lehorrak edo euritsuak izatea, udazkena aurreratzea, etab., horrek guztiak epe luzera sareko errepide guztietan lanak erregularitasunez eta maiztasun bati jarraituz egitea zailtzen du. Alabaina, esan daiteke hilerio burutzen direla garbitze lanak aipatu errepideetan.

Aipatu errepideei erantsitako lorategi-zonen garbitze lanak Ingurumena Babesteko Atalak une bakoitzean antzemandako beharren arabera egingen dira.

- Azken sei hiletan, zenbat aldiz egin dira garbiketa lan horiek?

Lorategi-zonen mantentze lanei dagokienez, honakoak egin dira:

- Belar-mozketa: bi aldiz moztu dira zuhaitziak.
- Landaredi ugariagoko zonak (erdibitzaileak eta lotuneak): bost aldiz moztu dira batez beste.

Kontserbazio lan guztiak, bideen, bazterbideen eta inguruen garbiketa barne, hilerio zehazten eta egiten dira, besteak beste aurreko erantzunean aipatutako faktoreak kontuan izanik.

Aurretik ere adierazi denez, azken sei hilabeteotan, hala N-1 (egun A-1) errepidean, Foru Komunitatetik igarotzen den tartean, nola A-15 errepidean, Leitzarango autobian, edo N-121 errepidean, Iruña-Tutera, garbiketa lan orokorrak egiteaz gain beharrezkoak izan diren guztietan ere egin dira, bat-bateko intzidentziak direla-eta zainketa zerbitzuak horien berri eman duenean.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko abenduaren 4an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Irunberriko zahar etxea handitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Irunberriko zahar etxea handitzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko azaroaren 20ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera egin du Irunberriko zahar-etxea handitzeko lanei buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak honako galdera hauek egin ditu idatziz erantzuteko:

- Zergatik ez da erabiltzeko prestatzen Irunberriko zahar-etxeke handitze-lanen ondoriozko eraikina?

Gai horri dagokionez, esan beharra dago Irunberriko zahar-etxeke handitze lanak aurretik zegoen eraikina handitzeko pentsatu eta egin zirela, eskualde horretan egoitza-toki lagunduetarako egindako eskaerak asetzeko asmoz.

Alabaina, 2003an, Departamentu honek Osasun Departamentuarekin, Anasaps elkartearekin eta Adimen Osasuneko Foroarekin batera Adimen Arazo Larrien Programa onartu zuen, eta horrek Nafarroako Foru Komunitateak alor horretan zituena beharrak berriro aztertzea ekarri zuen. Zehazki, aipagarria da laguntza psikogeriatrikoko tokien eskaria gero eta handiagoa dela eta, beraz, beharrezkoa dela mota horretako tokiak izatea.

Hori horrela, Irunberrin eraikitako instalazioak xede horretarako baliabide egokitzat jo ziren, eta horregatik hain zuzen, bide horretan dihardugu, uste baitugu baliabideak xede horrekin erabiliz hasieran pentsatutakoarekin baino hobeto erantzuten diegula errealitateko beharrei.

- Nola kudeatuko da eraikin berria?

Aipatu instalazioen titulartasuna Nafarroako Gobernuarena da, eta horien kudeaketari dagokionez, zeharka eginen da, itundutako erakundeen bidez. Aukera hori jasota dago hala Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legean, nola abenduaren 14ko 39/2006 Legean, Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzkoan.

- Ba al dago eskariari buruzko azterlanen bat, eraikin berrirako lanak justifikatzeko?

Nafarroako Parlamentuak 1997ko ekainaren 3an Plan Gerontologikoa (1997-2000) onartu zuen, non Nafarroako Ipar-mendebaldean egoitza-toki lagundu berrien beharra zegoela jaso zen. Hori horrela, planean, beste neurri batzuen artean,

Irunberriko San Isidro zahar-etxean 30 egoitza-toki berri egitea proposatu zen.

Alabaina, aurreikuspen hori gerora berriro aztertu da, dagoeneko adierazi denez, laguntza psikogeriatrikoko tokien eskaria handiaren eraginez.

Egun, laguntza psikogeriatrikoko tokien eskaria dagoela ukalezina da, eta gure Komunitatean horiek eskuratzeko itxaronzerrenda dago. Hori dela eta, 30 egoitza-toki gehiago egokitzea aurrerapauso handia izanen litzateke zerbitzu-alor horretarako.

Iruñean, 2007ko abenduaren 10ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: M.^a Isabel García Malo

Galdera, etorkinak hartzeko eta gizarteratzeko funtsari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera egin du etorkinak hartzeko eta gizarteratzeko funtsari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko azaroaren 20ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera egin du Etorkinak hartzeko eta gizarteratzeko funtsari buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak honako galdera hauek egin ditu idatziz erantzuteko:

- Zenbat diru jaso du aurten Nafarroako Gobernuak Etorkinak hartzeko eta gizarteratzeko funtsetik?

Protokoloko hirugarren klausularen 2. atalean ageri denez –protokolo horrek 2007. urtera arte luzatzen du Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak eta Nafarroako Foru Komunitateak etorkinak hartzeko eta gizarteratzeko 2005eko urriaren 28an sinaturiko lankidetza-hitzarmena–: Lan eta Gizarte Gaietan Ministerioak luzapen-protokoloa finantzatzeko milioi bat zazpiehun eta hamaika mila, zazpiehun eta hirurogeita zortzi euro (1.711.768,00 euro) emanen ditu.

- Funts horiekin zer urrats egin ditu etorkinak hartu eta gizarteratzeko?

Nafarroako Foru Komunitateak ekitaldi honetan garatu beharreko jarduerak 2007 Ekintza Planean daude jasota. Plan hori bi administrazioek onetsi zuten, eta baita bakoitzak haietarako finantzatu beharrekoa ere.

Egindako galderari erantzunez, plan horrek honako datuak jasotzen ditu:

Erakunde arduraduna	Jarduera	Aurrekontua
Immigrazioarako Bulegoa	Bitartekotza Zerbitzua	26.574,00
Immigrazioarako Bulegoa	Gazte etorkinen bazterketaren prebentzioa	53.508,00
Immigrazioarako Bulegoa	Prostitutei lagundu	53.508,00
Immigrazioarako Bulegoa	Elkarreetako zuzendaritzako kideen prestakuntza	15.600,00
Immigrazioarako Bulegoa	Berdintasunaren urteari buruz sentsibilizatu	100.000,00
Immigrazioarako Bulegoa	Kultura arteketasun lantegiak	15.600,00
Gizarte Gaien eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusia	Esku-hartze sozial egokirako gidaliburua	17.400,00
Gizarte Gaien eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusia	Sahararik beherako afrikarrak hartu	122.885,14
Familiaren, Haurren eta Kontsumoaren Zuzendaritza Nagusia	Helduen laguntzarik ez duten adingabeak hartzeko programa	196.000,00
Barañaingo Udala	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	35.000,00
Burlatako Udala	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	51.700,00
Castejónko Udala	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	21.800,00
Lizarrako Udala	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	31.565,00
Uharteko Udala	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	6.990,78
Iruñeko Udala	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	179.910,84
Tafallako Udala	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	23.148,71
Tuterako Udala	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	170.451,00
Atarrabiako Udala	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	35.043,00
Alloko Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitatea	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	14.090,68
Antzingo Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitatea	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	12.591,00
Berriozarko Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitatea	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	53.037,50
Buñuelgo Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitatea	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	19.746,25
Cadreitako Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitatea	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	90.000,00
Zarakasteluko Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitatea	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	12.500,00
Cascanteko Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitatea	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	9.295,00
Cintruénigoko Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitatea	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	76.356,00
Leitzako Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitatea	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	9.977,27
Bortzirietako Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitatea	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	12.310,00
Los Arcoseko Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitatea	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	7.100,00
Oliteko Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitatea	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	16.000,00
Azkoiengo Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitatea	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	89.221,79
Sakanako Mankomunitatea	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	48.150,00
San Adriánko Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitatea	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	52.600,60
Zangozako Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitatea	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	3.200,00
Izarbeibarko Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitatea	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	8.125,00
Vianako Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitatea	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	10.800,00
Artaxoako Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen udal taldea	Gizarteratzeko eta hartzeko programa.	9.982,44
GUZTIRA		1.711.768,00

Iruñean, 2007ko abenduaren 5ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako
kontseilaria: María Isabel Garcia Malo

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa. Lanpostu horietako batek betekizun gisa du euskara jakitea.

Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda

Onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendari –2008ko otsailaren 29ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen– erreklamazioak aurkezteko epea bukatuta eta aurkeztutako erreklamazioak epean eta forman ebatzita,

Legebiltzarreko Mahaiak 2008ko martxoaren 10eko erabakiaren bidez kalifikazio-epaimahaiaren osaketa osoa onetsita,

ERABAKI DA:

Lehena.- Lekualdatze lehiaketa horretako onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsia, deialdiko 4.4 oinarriak ezarritakoarekin bat. Horra:

Onartuak:

Armendáriz Semberoiz, M^a Asunción (Gaztelania)
Berzal Fernández, María (Gaztelania)
Borda Olagüe, Carmen (Gaztelania)
Círez Rubio, Jon Karlos (Gaztelania)
De la Llave Nuin, Olga (Gaztelania)
García Zubizarreta, Carmen (Gaztelania)
Jaurrieta Elcano, Teodoro (Gaztelania)
Lafuente Goñi, Begoña (Gaztelania)
Larrasoña Zunzarren, Raquel (Gaztelania)
Mangado Cortes, María José (Gaztelania)
Mangado Fernández, M^a Teresa (Gaztelania eta euskara)
Martínez Cosgaya, M^a Elena (Gaztelania)
Ontoria Del Cura, Eva (Gaztelania)
Rodrigo Jaso, M^a Jesús (Gaztelania)
Saldaña Zabalegui, Fernando (Gaztelania)

Sanz Mutiloa, M^a Pilar (Gaztelania)
Sesma Vallés, Amaya (Gaztelania)
Velasco Fleita, M^a Carmen (Gaztelania)

Baztertuak:

Inor ere ez.

Bigarrena.- Hauek dira lehiaketa epaitu behar duen epaimahaiko kideak:

Epaimahaiburua: Javier Fortún Pérez de Ciriza jauna, Nafarroako Parlamentuko Liburutegi, Artxi-
bo eta Dokumentazio Zerbitzuko burua.

Ordezkoa: Carlos Gil Martínez jauna, Nafarroako Parlamentuko Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko burua.

Epaimahaikidea: Juana Díaz de Rada Turumbay andrea, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatua.

Ordezkoa: Araceli Iturri Villanueva andrea, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatua.

Idazkaria: Francisco del Cerro Paúl jauna, Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Orokorretako burua.

Ordezkoa: Silvia Doménech Alegre andrea, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

Hirugarrena.- Erabaki hau epaimahaikideei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgunean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	